



- **Haur babestuegiak** Gurasoek on beharrez kalte egiten dutenean
- **Jose Maria Hualde Ruiz de Gamiz** Iruritako markesaren azken oinordekoa
- **My foot print** Norberaren aztarna ekologikoa neurtzen duen webgunea
- **Euskal Herrian lhesi webgunea** Turismo atari parte-hartzailea
- **Musikherria** Agur, merezi izan du

Konecta, Banca Cívica, Gallardo Taldea...

Espainiako lan erreforma hasi da haginka



**Aste
honetan...**



Beranduegi.tv



► Beranduegi datorren albistegia

Gorka Bereziartua eta Unai Brea kazetariak, astero bezala, ironiaz betetako begiratu zorrotza egin diote azken egunetako aktualitateari.



► Blog irakurketa: Biziko al zinateke tunelean?

Den-den-dena hankaz gora joango balitz ere –probablea, ekonomiaren gobernariak hartzen ari diren erabakiekin–, beti legoke aukeraren bat bizirauteko. Hori darabilkit buruan Marc Singerren Dark days dokumentala ikusi dudanetik...



► Karlos Zurutuza

Afganistan, 2010. Ospitale batean sartu da. Haurren negarra: besamotz, eskumotz... Piztu du pilotu automatikoa. Honen hitzak bildu ditu, haren argazkiak. Etxera itzuli da eta halakoan, krak egin du haren barruak. Afganistango garrasi mina Donostiaraino dakar gerrako kazetariak.



► Rith

Euskaldunok Korrika, bretoiek Ar Redadeg, galizarrek Correlingua, kataluniarrek Correllengua eta irlandarrek Rith daukate. Larunbatean Aran irletan eginiko ekitaldian amaiera eman zioten 200 herri igaro dituen eta 10 egunez luzatu den lasterketaren 2. edizioari.



www.argia.com

www.beranduegi.tv



Azaleko argazkia:

JON HERNAEZ/
ARGAZKI PRESS

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizaguirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetza: Karlos Olasolo. Idazkaritza tekniko: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko parteidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



• **NON ZER** •

2012ko martxoaren 25a, 2.316. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **June Fernandez:** «Matxismoa denongan dago errotuta, nigan ere bai». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Haur babestuegiak.** Seme-alaben esanetara. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 5

Pertsonaia

- **José María Hualde Ruiz de Gámiz:** «Etxea zutik irauarazteko dugun modu bakarra jendeari zabaltzea da». REYES ILINTXETA / 10

Gaiak

- **Aztarna ekologikoa.** Zenbat planeta kontsumitzen dituzu? NEREA ODRIOZOLA LARRAÑAGA / 16
- **Euskal Herrian ihesi webgunea.** Osa dezagun gure gida sarean. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 19

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Fikzioaren alde (eta II). BEÑAT SARASOLA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 21
- **Zaramaren kontuak eta kostuak.** IÑAKI BARCENA / 22
- **Txandan** Debekatua pozik egotea. CASTILLO SUAREZ / 22
- **A ze plana!** PILI YOLDI / 23
- **Hiruko txikian** Atez ate. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Erditze baten kronika. UXUE ALBERDI / 24

Erdiko kaiera

- **Requiem bat Musikherriari.** GORKA BEREZIARTUA / 25
- **Zinema.** 'Xora'-k asmatu du Jinkoak sortzen... eta desegiten. GORKA BEREZIARTUA / 27
- **Maskaradak.** Krisiaren atetik sartu dira berrikuntzak. UNAI BREA / 28
- **Liburuak** A. GALARRAGA / 30 • **Diskoak** I. BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32 • **Abarrak** MIKEL ASURMENDI / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Osasuna** J. AGIRRE / 36 • **Landareak** J. ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **Espainiako lan erreforma.** Eskubiderik gabe, lanpostuak merke. URKO APAOLAZA / 39
- **Merkataritzan euskaraz.** Bilboko dendariak bezeroari begira. AMAIA UGALDE BEGOÑA / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Zorpean sarraraziz nola ostu diguten denbora. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Bizitza nomadak.** JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL / 50



“Matxismoa denongan dago errotuta, nigan ere bai”

June Fernandez

Itsusia, emagaldua, lesbiana:
hitz batean, feminista.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

Kazetari feminista, edo feminista kazetaria?

Kazetaritza da nire bokazioa eta ogibidea. Feminismoak kazetaritza hobetzen duela frogatzen dugu *Pikara* aldizkarian, errealitatea aztertuz, androzentrismoa gaindituz eta ikuspuntu berriak jorratuz.

Gizon-emakumeak ez dira berdintasunean bizi, beraz.

Hori uste duenak bila ditzala lan esparruko estatistikak, indarkeria sexistaren inguruko datuak edo konta dezala zenbat emakume agertzen diren egunkari batean.

Mikromatxismoa aipatzen da; batzuek diote ez dela hainbesterako.

Eta beste askok matxismo bortitzarekin erantzuten dute: puta eta lesbiana deika. Gure inguruan oharkabeen errepikatzen diren jarrera eta ohitura matxistak identifikatzea ezinbestekoa da.

Zaplada ipurdian, lerre jarria, txantxa usteak; askok uste du zilegi direla.

Emakumeak txikitatik eraso sexistak sekretuan pairatzeko eta lotsa sentitzeko prestatzen gaituzte. Protestatzen badugu, zakarrak eta esajeratuak izatea leporatzen digute.

Piropo batek min?, galdetuko du inork, eta ez derrigor aldamioko beharginak.

Testuingurua da gakoa: kalean, bortxaketaren mamua; lanean, lankide baino sexu objektu bezala tratatuak izateko joera. Askotan piropoen helburua gizontasuna frogatzea da. Enpatia eta errespetua eskatzen ditut.

Emekeria omen da feminismoa.

Emekeriarekin nahastea feminismoak dakarren eraldaketa soziala oztotatzeko estrategia bat da.

Eta emakume izatea baino zerbait gehiago behar da feminista izateko?

Kontzientzia. Argi dago Esperanza Aguirre ez dela feminista. Bestalde, emakume askok jarrera feminista daukate, baina ez dira identifikatzen, ospe txar hori dela eta.

Matxismoak gizonezkoa ere ezeztatzen du, noski.

Zalantza barik. Ligatzeko gogorik ez baduzu, kirolzalea edo ausartegia ez bazara, maitekorra bazara, Ken Zazpi gustuko baduzu... Nekagarria izan behar du beti oso *matxoa* zarela frogatu beharra.

Gizona ez da berez matxista, beraz.

Matxismoa denongan dago errotuta, nigan ere bai. Asmoa ez da matxista etiketa jartzea, baizik eta denok gure jarrerak aztertzea eta aldatzen saiatzea.

Aizu, ba ozpinago imajinatzen zintudan.

Eta nik zu deabruago. Feministak haserre bizi garela diote, baina ni nahiko zoriontsua naiz. Emma Goldman-ek esan zuen: “Ezin badut dantzatu, ez da nire iraultza”. ■



Haur babestuegiak

Seme-alaben esanetara

Heziketa zurrun eta zorrotza jasan zuten guraso ugari kontrako bideari heldu dio gaur egun: seme-alabak ez dezan minik hartu, ez dezan negarrik egin, ezerk ez dezan nahigabetu... gehiegi babesten dute, haren menpe geratzeraino. Haurtzaroan ezetzik jaso ez duen gaztea nerabazarora iristen denean, eztanda egin ohi du egoerak.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Marrazkiak: Garbine Ubeda Goikoetxea

“LASAI, nik lotuko dizkizut oinetakoak, oraindik ez dakizu-eta, eta nik bainatuko zaitut, nik jantziko, hortzak garbituko eta eskolara eramango; eta gauero bezala nire ohean egingo duzu lo, amesgaiztorik ez izateko”. 8-10 urteko seme-alabari horrela mintzatzea ez da hain kasu apartekoa. Eskolara haurraren bila joan eta gustuko duen askaria baino ez dio eramango gainera, bestela haserretu egin daitekeelako, eta parkera joan nahi badu, euria ari duen arren, umearen nahia beteko du gurasoak.

Umetan denok erori gara noizbait bizikletatik, eta belaunean hartxintzarrek eragindako zauria dugula ikusi ostean, altxatu eta bizikletan jarraitu dugu. Gaur egun, guraso ugari larrituta gerturatuko dira erori berri den seme-alabarengana, eta neurrigabeko garrantzia emango diote zauriari. Garaiak aldatu direlako. Guraso asko jarrera autoritarioen beldur dira, sarri beraien gurasoengandik eredu horixe

jaso zutelako eta hurrengo belaunaldiarekin hori konpentsatu nahi dute, afektu eskerga eskainiz, baina gaizki ulertutako afektua. Hala azaldu du Iñigo Ochoa de Aldak, psikologo, irakasle eta aita arabarrak. Arazoak dituzten adin txikikoen terapeuta ere bada Ochoa de Alda.

Seme-alaben sufrimendurik txikiena onartu ezin duten gurasoez hitz egin dugu. Sasoi bateko “utziozu negar egiten, ona da-eta” gisako esaldien kontrara, haurraren samina gaizki daramate, umeak angustiarekin bizi duela ulertzen dutelako, eta ez ikasketa prozesu moduan, “baina haurrari ez badiozu uzten sufritzen eta frustrazioa sentitzen, ez diozu uzten bere kabuz ikas dezan egoera ezkorrei aurre egiten”. Adimen emozionalaren, liburuen eta informazio burrunbaren aroan, psikologo eta hezitzaileak hein batean erantzule izan daitezkeela aitortu du Ochoa de Aldak. Amak eta

aitak bizi duten presioa handia da, gainontzekoek



pentsatuko dutenarekiko eta guraso txar iza-tearekiko izua, orain badirudielako mundu guztiak dakiela edo jakin beharko lukeela heziketaz eta psikologiaz: “Gurasook etengabe jartzen dugu zalantzan nahikoa ote den egiten duguna, lehen lasaiago hartzen zituzten gauzak, baina gaur egun gure buruari asko exijitzen diogu eta horrek batzuetan ez digu uzten ikusten umeari den-dena ematea ez dela guraso ona izatea. Une jakin batean haurra bizikletatik erori eta korrika joaten bagara bila, larrituta, ez da ezer gertatzen, ez du esan nahi gehiegi babesten dugunik, arazoa da jokaera horiek finko bihurtzen direnean, eredu”.

Gaizki moldatzen diren bikoteetan, bikotekideari eskaintzen ez dioten arreta umearengana zuzentzen omen dute hainbatetan, edo lana dela-eta seme-alabari denbora gutxi eskaintzen zaiola orekatzeko, gehiegi babesten dituzte. “Jateko ohituretan sarri ikusten da hori: gutxi egoten naiz umearekin, nagoen denbora hori ez dut pasa nahi ondo jan dezan borrokan, pizza afalduko dugu eta kito, eta bere logela ere nik neuk jasoko dut, ez liskartzearren”. Umeak aprobetxatu egingo du egoera, ohartzen delako haserretzen denean aita eta ama urduri jartzen direla, edo triste, eta modu horretan jokatzuz gurasoak “tiranizatu” ditzakeela.

Umea mimatzea vs. gehiegi babestea

Merezi ez arren, haurrari nahi duena eta gehiago ematen diogunean, mimatzen ari gara, Olentzerotan opari mordoa jasotzen duenean esaterako, baina prozesu kontzientea da. Gehiegi babestea arazo sakonagoa da, gurasoak jokatzeko baitu seme-alaba bere parte bailitzan, ez da bereizteko gai, eta umeak sufritzen badu, gurasoak sufritzen du. Hala, ez dio utziko gauza berriak probatzen, sufritu badezake, eta bizikletan ez du jarriko erori daitekeelako, igerilekuan ez du sartuko ura irentsi dezakeelako, elurretara ez du eramango katarroa harrapatu dezakeelako... “Lotura afektibo arriskutsua sortzen da, umeari inkontzienteki zera adierazten diozulako: zuri min egiten dizunak niri ematen dit min, ni ondo egongo naiz zu ondo bazaude. Konturatu gabe, aitak edo amak seme-alaba erabiltzen du akaso gurasoari falta zaion ongizatea umeari emateko”, argitu du psikologoak.

Non dago muga, ordea? Noiz eta zenbat

“Haurrari ez badiozu lagatzen sufritzen eta frustrazioa sentitzen, ez diozu uzten bere kabuz ikas dezan egoera ezkorrei aurre egiten”

IÑIGO OCHOA DE ALDA, PSIKOTERAPEUTA

“Lotura afektibo arriskutsua sortzen da, inkontzienteki zera adierazten diozulako umeari: zuri min egiten dizunak niri ematen dit min, ni ondo egongo naiz zu ondo bazaude”

IÑIGO OCHOA DE ALDA, SIKOTERAPEUTA

utzi behar diogu seme-alabari sufritzen? Ochoa de Aldaren hitzetan, sen ona eta erdibidea dira giltza. Alegia, garai batean zabalduagoa zegoen eredu autoritarioaren funtsean kontrol asko eta afektu gutxi daude, eta gehiegi babesteak kontrol asko eta afektu asko ditu oinarri, bada, kontrola eta afektua neurrian bideratzea litzateke egokiena, seme-alabari jarraibideak ematea, afektuarekin. Umea bizikletatik erortzen denean, laguntzera joan daiteke gurasoa, baina lasai gerturatuz eta gertaerari duen garrantzia emanez, hartara

haurrak jakingo duelako, negar egin arren, gertatu zaiona ez dela larria. Eta negarrez ari bada, ordu erdiz negar batean bakarrik uztea ere ez da soluzioa. Psikologoaren hitzetan, “kontua da denok ikusten dugula eredu autoritarioegia okerra dela, baina gehiegi babestearen gaitza ez da hain


argi ikusten, badirudielako gehiegi maitatzea ez dela txarra. Eta ondoren, haurrak nerabezaroan eztanda egiten duenean, gurasoak harrituta geratzen dira, ‘baina nola kexatu zaitzake, eman dizudan guztiarekin, zuregatik egin dudak guztiarekin?’”. Bai, behar eta eskatutako guztia eman dio haurrari gurasoak, baina autonomia ohiturak har ditzan galazaz dio.

Ikasleen artean egunero ikusten duen errealitatea dela azaldu digu Iñaki Garijo irakasleak. 25 urtetik gora daramatza Garijok irakasten eta Donostiako Axular ikastolan egiten du lan, 11-12 urteko haurrekin. Babestuegiak daudela nabari den ikasleen artean, bi mota bereizi ditu. Batetik, nahi dutena egin

dezaketela uste dutenak daude, badakitelako gurasoen sostengua izango dutela haien ekin-tzek, handiuste jokatzeko dute ikasle eta irakasleekin. “Adibidez, duela gutxi bi ikaslek gatazka izan zuten elkarren artean, horietako batek oso jarrera harroa erakutsi zuen bildu genituenean, bada, ondoren, haur horren aita beste ikaslearengana joan, lepotik hartu eta mehatxatu egin zuen. Halakorik ezin da

onartu, eta gainera, konturatu ez arren, bere buruari harrika ari da aita hori, semea beti duelako liskarren batean sartuta eta normala da, aitak babesten duela ikusten du-eta”.

Beste haur batzuk berriz, kikilduta ikusten ditu Garijok, ohituta daudelako gurasoak dena egin diezaieten, oso markatuta dute bidea eta autonomia falta zaie. “Beldurrarekin-edo jokatzeko dute harremanetan, aparte



Gurasoengandik ezezkorik jasotzen ez duen haurrak, gainerakoengandik ere ez du ezetzik onartuko. Umeren batek ez badu berarekin jolastu nahi, ez du ulertuko, eta agresibo jarri daiteke, jo egingo du beharbada, edo kasketa harrapatuko du...

bezala geratzen dira, isilik, bigarren maila batean, eta talde lanetan ez dute parte hartzen edo etxean egiteko uzten dituzte ariketak, han gurasoek lagunduko dietelako. Ez dute jarrera agresiboa, baina haien gurasoekin hitz egiterakoan jabetzen gara etxean beste aurpegi bat erakusten dutela, eskolan baino tiranoagoak direla”.

Irakaslearena da errua

Iñaki Garijok argi du, gurasoa inplikaturik ez badago, gutxi egin dezakeela eskolak berak bakarrik haurren heziketan. “Normalean istiluren baten harira elkartzen gara gurasoekin, esaten diegu umeak errespetu falta duela, edo borrokaren batean hartu duela parte... eta batzuek ulertzen dute, neurriak jartzen dituzte, baina beste batzuek ez dituzte arazoak ikusi nahi eta esaten dizute hori ez dela horrela, ez dela egia. Itsututa ikusten ditut eta gurasoek ez badute ikusi nahi... Eskolak bere neurriak hartzen ditu, adimen emozionalaren ildotik autoestimua eta halakoak lantzen ditugu, baina eskolaren eta gurasoen arteko koordinazioa da onena”.

Hain zuzen, Iñigo Ochoa de Aldaren hitzetan, ohikoa da seme-alabak babestuegi dituzten gurasoek irakasleari egozte errua haurrari zerbait gertatzen zaionean, ez dute

uste seme-alaba aldendu daitekeenik berarengandik espero dituzten jarreretatik. “Sarri, irakasleek bete behar izaten dituzte etxean bete ez diren rolak: umeari ezetz esatea, nahi duen guztia eta nahi duen unean ez ematea... eta hainbat gurasok ez du ulertzen, iruditzen zaio irakaslea ez dela bidezkoa, gogorregia dela, haurrari mania diola, eta 4-5 urteko haurrez ari naiz!”. Horrelako gurasoak oso kritikoak izan ohi dira beste pertsoekin, haurra babestu egin nahi dutelako sufriarazten duen harengandik. Baina nahasgarria da umearentzat, ez baitaki helduengandik jasotzen dituen



Diziplina eta espontaneotasuna, bi teoria kontrajarri

Duérmete niño liburuaren jarraitzailea ala *Dormir sin lágrimas* izenburudunarena. Guraso berriek teoria polarizatuarekin egiten dute topo, ikasi egin nahi dutelako, baina bonbardatu egiten dituzte, formula itxiak baleude bezala. “Eta ez dago halakorik, umeak ez direlako hezten produkzio-kate moduko fabriketan”, gogoratu du Iñigo Ochoa de Aldak.

Psikoterapeutaren ustez, garrantzitsua da umeen jarduna nolabait egituratzea, egiturak laguntzen dielako datorrena aurreikusten, baina ez da eredu zurrin bat, ezin da obsesio bihurtu. Guraso batzuek pentsatzen dute egiturarekin haustea txarra dela eta zehatz-mehatz betetzearekin itsutzen dira, baina ez da ezer gertatzen jolas-denbora luzatzen bada egunen batean edo aitona-amonek umeari txokolatea ematen badiote jatorduetatik kanpo. “Lehiakortasunaren presioa dago atzean, nor izango den lehena ibiltzen eta lo bakarrik egiten, pixoihalak erabiltzen ez dituen haurra eskolako errege-

erregina bailitzan; zer axola du ordea, lehenago edo beranduago denek egingo badute? Gehiegizko ardura hartzeak, gehiegi babesteak, ez dio umeari utziko baliabideak bere kabuz garatzen”. Kontrakoa, haurraren heziketa espontaneotasunaren esku uztea, arriskutsua dela gaineratu du Ochoa de Aldak. “Garrantzitsua da naturaltasuna, haurrak eskatzen duenean ematea bularra adibidez, baina muturrera eramanda, eskaera horren esklabo bihurtzen da ama, eta esnea emateko gaitasuna galdu lezake, haurrak gutxiegitan eskatzen badu”.

Malgutasunik gabeko diziplina eta jarraibiderik gabeko lotura emozional hutsa, bata zein bestea herren geratzen direla iritzi dio psikoterapeutak. Umearen arabera bi ildoak uztartzen asmatzea aholkatzen du, egitura eta lotura emozionala. Azken finean, sen onaren aldeko apustua egiten du, mendez mende iraun duen herriaren jakinduria baliatzea, ezagutza berriekin bat eginez.

jarretan zein den ona, eta horrek ume txikiaren portaerak bultzatzen ditu, kasketak, haserrealdiak...

Nerabezaroa, beranduegi arazoa bideratzeko?

Orain arte azaldutako jokabideen ondorio izan daitezke haurrak ez bereiztea zer dagoen ondo eta zer gaizki, egoera ezkorrei aurre egiten ez ikastea, harreman sozialetarako baliabiderik ez garatzea, ezezko bat jasotzen ez jakitea eta frustraziorako gaitasunik ez izatea, heldutasunaren eta autonomiaren bidea ez jorratzea, sormena eta inizatiba ez bultzatzea, joera beldurti, lotsati, ahul eta zalantziak sortzea... “Bi jarrera mota eragin ohi ditu babestuegi egoteak: ondoko haurrak ez dienean harekin jolasten uzten, batzuk agresibo jarriko dira eta jo egingo dute, ez dutelako inoiz ezezkorik jaso. Beste batzuek pentsatuko dute beraien arazoa dela, ingurura ez direla ondo egokitzen, eta beren baitan itxiko dira, harremanik finkatu gabe. Horrek eramanez ditzake drogak kontsumitzera, ez sufritzeko eta horretan ez pentsatzeko, edo gehienbat nesken artean, elikadurarekin desorekaren bat izatera”. Psikologoak gaineratu duenez, haurren pertsonalitatean garatzen doazen jarrera horiek nerabezaroan lehertu ohi dira, modu arrisku-tsua goan.

Nerabe guztiek dute gurasoengandik bereizteko beharra, eta nerabe oro kexatuko

zaie gurasoei, haserretuko dira haiekin, baina gurasoak tinko mantentzen badira eta aldi berean malguak izaten eta negoziatzen baldin badakite, frustrazioa onartzen duen gaztea errazago egokituko da. Aldiz, eskubide guztiak eta inongo ardurarik ez izatera ohituta dagoenak xantaia egiten eta exijitzen jarraituko du: “Etxean mahaia inoiz jartzen ez duten 17 urteko gazteak daude, ez dutenak ohea egiten, logela jasotzen edo zakarrik jaisten, gaizki portatu arren paga astero jasotzen dutenak, eta nahi duen guztia egiten uzteak demokrazia faltsua eragiten du: nerabeak uste

Eskubide guztiak eta inongo ardurarik ez izatera ohituta dagoenak xantaia egiten eta exijitzen jarraituko du. “Nahi duen guztia egiten uzteak demokrazia faltsua eragiten du: nerabeak uste du denerako eskubidea duela”

du denerako eskubidea duela, librea dela, baina gaizki interpretatzen du askatasunaren ideia. Mugarik jarri ez eta beti eskatutako guztia izan duen 17 urteko gazteari nola jarri ordutegi bat, arau batzuk? Babestuegi izatearen ondorioz, ez du baliabiderik garatu negoziatzeko, modu egokian komunikatzeko eta kexatzeko, eta agresibitatea da erantzuteko duen era. Umetan kasketa

zena, nerabezaroan iraina da, eta umearen kasketa ez baduzu eusten jakin, nola jakingo duzu nerabearen eraso gelditzen?”, dio psikologoak.

Deustuko Unibertsitateko talde batek otsailean aurkeztu berri duen ikerketaren arabera, EAEko 14 eta 18 urteko chun gaztetik zazpi aitortu dute gurasoak jo dituztela noizbait, eta %2,5ek diote azken urtean hiru eta bost aldiz artean jo dituztela aita edo ama. Ikerlariak arrazoitutakoaren arabera, nerabe

horien atzean azken urteotan gehien hazi den profila da mugarik eta ezetziz izan ez duen gaztearena.

Beste ikerketa bat hartu du hizpide Ochoa de Aldak, 2007an Gipuzkoan beste hainbat psikoterapeutarekin batera argitaratu zuena. 12 eta 18 urte arteko gazteek gurasoekin zuten harremana aztertuta, honakoa errepikatzen omen zuten gehien gurasoenganako jarrera oldarkorra zutenek: “Nazka ematen didate, lotsa”. Izan ere, gehiegi babesten duten gurasoak bikainak dira haurtzaroan, baina lotsagarri bilakatzen dira nerabezaroan, beharrak beste batzuk direnean, eta seme-alabarentzat autoritaterik ez duen gurasoaren mehatxua, ertzainei deituko diela adibidez, barregarria da.

Atzera bueltarik gabeko arazo bilakatzen al da uneren batean? Psikologoak kontatu digu kasu oso gogorrak izan dituela aurrean, eta gurasoak terapiari inplikatzeko diren heinean, egoera konpontzeko aukera handiagoak daudela. Bitartekari lana egitea egokitzen zaio neurri batean, elkarbizitza berreskuratzeko, batetik gaztea independente eta autonomo sentitu dadin, baina autonomo eta independente dela frogatzen duten gauzak egin ditzan, eta bestetik gurasoek ulertu dezaten seme-alabak autonomo izateko gaitasuna duela eta berreskuratu dezaten galdutako autoritatea. Biolentzia, zentro bereziak, droga kontsumoa, elikadurarekin desorekak... tartean daudenean, ordea, Ochoa de Aldak dio bigarren mailan gelditzen direla atzeko arrazoiak, lehentasuneko arazoei heltzeko. “Seme-alaba nerabearen portaera ikusten dutenean bai, orduan konturatzen dira gurasoak, eta esaten didate, ‘Iñigo, izan ere denetik eman diogu umea zenean’, baina ordura arte ez ziren ohartzen, haurra denean ume mimatua delako, edo infantilegia, edo arraroa... Aitzakiak jartzen dira”.

Arazoaren garrantzia eta tamaina

Ikuspegi ezkorra eta baikorra, biak eman dizkigu psikologoak. Seme-alaba zentroren batera bidali eta buruhaustea gainetik kendu nahi duten gurasoak kezkatzen ditu gehien: “Nerabezaroan proba modukoa egiten dugu denek gurasoekin, frogatzeko zein puntutarraino naizen jaun eta jabe, eta gobernatzen nautenean, ikasten dut errespetatzen nautela baina arau batzuen menpe nagoela. Gurasoek segituan amore ematen badute, helarazten didaten mezua da baietz, jaun eta jabe naizela; nire gainetik dauden gurasoek ezin banautu gobernatu, zeinek ahalko du?”.

Aldiz, errealitate orokorra ona dela nabarmendu du, egin zuten ikerketan jasotako



Gertatu daiteke gehiegi babestutako haurrek harreman sozialetarako baliabiderik ez garatzea, heldutasunaren eta autonomiaren bidea ez jorratzea, joera beldurtia eta lotsatia izatea... eta nerabezaroan jarrera horiek indartzea, gaztea bere baitan biltzea.

datuen arabera neska-mutilen ia %60k baikor baloratzen zutelako gurasoenganako harremana; alegia, adierazi zuten kontrola eta afektua modu orekatuan jasotzen zutela, “eta gazte batek sentitzen duenean maite duzula, baina aldi berean pixka bat izorratzen diozula, ondo egiten ari zara guraso bezala”. Bigarren kopuru handiena babes-uegi sentitzen diren gazteena zen (%28) eta eredu autoritarioak eta kontrolik eta afekturik gabeko harremanak zituzten portzentaje txikienak.

Iñaki Garijok, bere esperientziatik, lehia-kortasuna ikusten du gaitz nagusi. Irakaslearen hitzetan, gizartetik eta gurasoengandik hori jasotzen dute haurrek, emaitzei garrantzi handia ematen zaie, beste balio batzuei arreta eskaini beharrean. “Lehen gauzak beste patxada batekin egiten zirela esango nuke, orain oso programatuta daude umeak eta batzuetan, seme-alabak aparkatuta izateko modua da”. Hori, ordea, beste erreportaje baterako gaia da. ■



José Maria Hualde Ruiz de Gámiz

«Etxea zutik iraunarazteko dugun modu bakarra jendeari zabaltzea da»

Ez monokulorik, ez belusezko jakarik, ez kokospeko izarrik. José María Hualde Ruiz de Gámiz, etorkizunean Casa Torreko markes jaunak, bere etxean, Baztan ibarreko Irurita herriko jauregian, turistak modu naturalean hartzen ditu. XV. mendeko oinetxea eta XVIII.eko jauregi barrokoaz gain, mendeetan zehar bildutako altzari, artelan eta agiriak ikusiko ditugu bisita gidatu trinkoan. Baztango historian atzera-aurrera saltoka ibiliko gara toke jolasean bezala.

REYES ILINTXETA

Argazkiak: Dani Blanco

Etxe noble batean sartu ahal izatea ez da oso ohikoa.

Anitz izan dira nobleziarekin lotutako etxeak Baztanen. Hau bat gehiago besterik ez da. Jauregiaren berezitasuna da XV. mendetik gaurdaino familia bera, gurea, hemen bizi izan dela. Garai batean Baztango noblezia nolakoa zen eta nola bizi zen ikusteko aukera eskaintzen du etxeak eta hori da bisitari ororen esku jarri nahi izan duguna. Aldi berean, jendeari zabaltzea eta erakustea etxea zutik iraunarazteko dugun modu bakarra da.

Zer gertatu da beste etxeekin?

Gehienak saldu egin dira. Batzuetan altxor txiki batzuk gordetzen dira, baina hemengo bezalako bildumarik ez dute. Hainbeste altzari, liburu eta artelan oso kasu bakanetan kontserbatzen dira. Nafarroan aristokrazia goreneko bi etxe garrantzitsu badira izugarritzko ondarea gordetzen dutenak, baina horiek ez dira publikoarentzat irekitzen. Hau ez da hainbesteko kategoriakoa baina bai oso interesgarria, ikuspegi orokorra eskaintzen duelako.

Bisitariei zabaltzeko ideia noiz sortu zitzaizun?

Duela zazpi bat urte egin genuen azken berrikuntza eta proiektu horri ekonomikoki aurre egin ahal izateko irtenbide bat behar genuen. Azkenean gero eta gehiago sakonduz joan gara eta bide berriak jorratzeko asmoa dugu. Lora-

tegia ari gara moldatzen ezkontzak eta argazki saioak egiteko eta baita publikoari zabaltzeko ere. Era berean, ondoko eraikin batean arte garaikideko aretotxo bat zabaldu nahi dugu.

**Etxea zabaldu ondoren, norantz doaz zuen aha-
leginak?**

Orain arte murgilduta ibili gara etxearen eta ondarearen zaharberritze lanetan eta zer edo zer ere erosi dugu. Hori da niri gehien interesatzen zaidana. Testamentu zaharretan aipatutako hemengo piezak nahi ditugu berreskuratu, bereziki. Horiek beraiek agian ez, oso zaila delako aurkitzea, baina bai garai berekoak eta oso antzekoak izan daitezkeenak. Izu-

Nortasun agiria

José Maria Hualde Ruiz de Gámiz (Irurita, 1967) bere leinuko azkena da, baina horrek ez dio axola, antza denez. Geografia eta Historia ikasketak egin zituen Donostian eta orain ama gau eta egun zaintzen bizi da jauregian. Bisita gidatuak egiten ditu bisitariantzat eta enkan-teetan bilatzen ditu bere bildumarako interesgarriak izan daitezkeen piezak. Hitz jario handikoa, kritikoa eta probokatzaila. Pasioz hitz egiten du historiaz nola arteaz, eta ez du beldurrik pentsatzen duena argi esateko.





garri barreiatu izan dira mendeetan zehar salmenta eta herentzien bitartez. Casa Torre markesaren tapizak aurkitzea, adibidez, oso zaila da. Baten bat Bilbon dagoela badakit. Jose María de Lizana y de la Hormaza, Bilbo-ko alkate izan zena, nire birramonaren anaia zen. Baina pieza hauen jabeek ez dituzte saldu nahi eta gainera ez dakit zein kontserbazio egoeran dauden.

Zaharberritze lan guztia guk geuk eginga da. Gela batzuk kendu eta erosotasun batzuei uko egin behar izan genion ahalik eta era fidelenean etxearen egitura eta banaketa errespetatzeko. Dorretxe eta jauregiari duela 300 urte zuten itxura eman genien, jendeari erakusteko zein zen defentsarako dorre hauen egitekoa eta azaltzeko nola noblezia bi taldetan banatu zen, agramondarrak eta beaumontarrak, eta nola leinu horiek guztiak gainbeheran ziren Gaztelak Nafarroa konkistatu zuenean. Geroago, XVIII. mendean, familia horiek berriz lehen planoan agertu ziren Felipe V.arekin. Honek baztandarren eskubideak defenditu zituen eta baztandar eta nafar asko erregearen administrazioan goi karguetara iristen lagundu zituen. Garai hartakoa da gure jauregi barrokoa, dorretxeari erantsia dagoena. Guk etxebizitza XVII. mendeko lehen zabalkundeko eraikinean dugu, ukuilua izandakoa eta 1970ean erre egin zena. Orduan baino hobeki bizi gara baina hotza eta hautsa, adibidez, ez dira falta izaten!

Etxeko lehen jabearen aipamena noizkoa da?

Ezagutzen den lehen etxeko jauna Pedro Pérez de Irurita, Peroren semea, izan zen. Lehen erreferentzia idatzia 1436koa da. Baliteke orduko jada dorrea eginga egotea edo antzeko eraikin bat. Berak eta beste noble batzuek lortu zuten Vianako Printzeak Baztango kaparetasun unibertsala berriro zezan. Antzinako erregimenean hiru estamentuek, kleroak, nobleziak

eta herri xeheak ordezkaritza zuten gortean. Ordezkaritza zuten nobleen zerrenda bera izan zen XVI, XVII eta XVIII. mendetan eta etxe honetatik ere joaten ziren.

Parasito

"Gauza bat da laguntza puntual bat gerora bideragarria izan den proiektu bati bultzada emateko eta oso bestelakoa parasito baten antzera bizi nahi izatea Estatutik dirua xurgatzen etengabe".

Zenbaterainokoa izan zen Ameriketako diruaren garrantzia?

Etxe hauen ekonomia igo eta jaitsi egiten zen etengabe. Berezko ondareek ez zuten askorako ematen. XVII. mendean lursailak balioa galdu zuten. Herriko edozein bizilagunek nobleak baino diru gehiago izan zezakeen. Bi indiano aberats ezkondu ziren etxeko alabekin. Dirua eta noblezia saiatu dira beti elkar-tzen. Familia harreman onak behar ziren gortean ongi kokatzeko eta gora egiteko. Dena klientelismoa zen, gaur egun bezala. Gaur egun, teorian, administrazioak saiatu behar du dena ahalik eta merkeen egiten, diru publikoari atarramendurik onena ateratzeko. Lehen ez zen horrela eta gaur egun ere askotan ez dira egiten behar diren kontrol guztiak.

Diru publikoaz asko hitz egin daiteke. Espainian bada irizpide bat lehenbailehen aldatu behar dena: Aita Estatuak ezin du dena bere gain hartu. Ezin ditu diru-laguntzak ezker-eskuin banatu. Gurea bezalako proiektu txikitxo hauek oso interesgarriak dira ondarea gordetzeko eta historiaren zabalkundea egiteko. Etekin ikaragarriarik ez du inoiz emanen, baina behintzat aurrera eramanez daiteke oso laguntza publiko zehatzekin. Administrazioaren laguntza publizitate, kartel eta promoziorako oso ongi dago. Hortik aurrera, diru-laguntza jakin batzuk, adibidez zaharberritze lanak egiteko, eta kito. Baina hori ez da gertatzen. Hemen Nafarroan hainbat erakundek urtetan milaka euro hartu ditu automatikoki. Jaso dezala merezi duena eta zerbait ez bada errentagarria ixten da eta kito. Adibidez, Oteiza Museoa oso interesgarria



da artistikoki, baina diru galera etengabea Nafarroako Gobernuarentzat. Bisitari bakoitzatza ateratzen bazaigu 80 eurotan, agian pentsatu beharko da soilik asteburu edo jai egunetan irekitzea. Irizpide ekonomiko egokia bilatu behar da administrazioak bere gain hartu behar ez dezan defizitarioa den guztia.

Orain, krisia dela eta, irizpide produktibogoa eta arrazionalagoak ezarri beharko dira denon onerako. Batek gehiago merezi badu, eman egin beharko zaio, eta alderantziz. Baina inor ez dadila alfertu. Eta kultura alorrean hau oso erraza da. Hau ilusiogatik eta gure bizi proiektua delako egiten dugu, baina gero erabiltzen diren irizpideak ikusita izutu egiten zara. Nafarroako Museoari, adibidez, laguntzak kendu dizkiote eta aldi berean Sanferminetako Museoa egin nahi dute Iruñean, jakinda diru galera izanen dela eta ondarearen aldetik batere interesik ez duela. Baluartean kalitatezko erakusketak jartzen ari dira baina kostu ikaragarriekin, eta bitartean CAN dirua sartzen eta sartzen aritu da otzan-otzan defizitarioak ziren ekimen guztietan. Ospitaleak, errepideak egin behar dira. Hori da benetan

Bonjour

“Frantziara joaten bazara han gaztelaniaz zerbait dakien jendea aurkituko duzu. Hemen aldez, mugatik hamar kilometrora gaudela, inork ez du ezta *bonjour* esateko lana hartzen”.

garrantzitsua. Kulturara eta gaur egun dauden egituretara, bereziki, diru gutxiago bideratzen bada, hobe. Nik ez dut zalantzan jartzen hamaika teknikari eta kargudunen gaitasuna, baina erdua berrikusi behar da. Beste adibide bat: ezin da eraikin bat egin, itsu-itsuan, Huarteko Arte Garaikide Zentroarekin egin duten bezala. Lehenbizi artelanak eduki behar dituzu eta oso garbi definitu nondik nora joan nahi duzun.

Eta bizitzeko dirua nondik aterako dute artistek?

Espainian, oro har, askoz ere gehiago bultzatu beharko litzateke mezenasgoa. AEBetan, adibidez, dirudunak harro agertzen dira koadro bat museo bati emateaz, ospital bat handitzen laguntzeagatik edota unibertsitaterako bekak emateagatik. Espainian kontrakoa egiten dugu: beti begiratzen ari gara ea Estatuaren zein errapetatik hartzen ahal dugun esne gehien.

Hemen enbalatuak dauden koadro horiek, zergatik daude horrela?

Arte garaikide latinoamerikarraren bilduma-ko ale batzuk Artium museoan daude, eta



**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



**BIZKAIA
BIZIA**

OFF THE RECORD

Seme-alabak

“Ez daukat seme-alabarik. Oraingoz ardura gehiago ez dut nahi. Gauza asko egin dut nire bizitzan eta orain niretzako denbora pixka bat nahi dut. Etorkizunari begira, ama zendutakoan, bidaiaren bat egin nahi nuke, baina hemen jarraituko dut. Etorkizunean etxearekin zer gertatuko den ez dit axola. Senitate-koren bat agertuko da honetaz arduratuko dena, edo saldua izanen da, edo eraitzia edo erreko da... edo agian oso ongi joanen da negozioa eta bisitari asko eta asko etorriko da. Ez dakit. Hau egiten dugu buru-estimatu eta plazerarengatik. Ahal dudana egiten dut nire ondorengoak errazago izan dezan”.



hemen dago hara eramanez ez zutena. Nik hemen zintzilikatuta ditut batzuk, baina ez dut denentzako tokirik. Etsigarria da, politena dena ongi antolatua ikusi eta horretaz gozatu ahal izatea delako. Oso dibertigarria iruditzen zait jendeak esaten duenean ez duela ulertzen nola jar ditzakegun halako gauza arraroak hemen. Hau da nire ekarpena. Kanforrez beteriko beira-arasa batean ez dut bizi nahi eta gainera onena da norberak uste duena egitea besteei gustatu ala ez. Probokatzeari oso ongi dago.

Nola eta Iruritako familia honetan ez dela euskara gorde?

Horrek baditu bere arazoak. Nire amaren ama, amona María, Elorriokoa zen eta euskaraz egiten zuen bikain. Aitona Juan Pablo Ruiz de Gámiz arabarra zen eta ez zekien, baina Arantzazuko Ama Birjinarenganako jaiara handia zuen eta diru asko eman zuen Arantzazuko eliza egiteko. Amonak zailtasunak izan zituen haurdunaldi eta erditzeetan. Abortu asko izan zituen eta aitona promesa egin zuen une horretan amaren sabelean zegoen umea aurrera ateratzen bazen bere esku zegoen guztia egingen zuela basilika eraikitzeke. Nire ama zen ume hori, eta Aranzazu izena ezarri zioten. Kubatik ekarritako dirutzaren azken sosa Arantzazuko basilika altxatzeko eman zituen.

Ondarea

“Amak familiaren ondarea berreskuratzeari ekin zion gogoz. Beste etxeetan barreiatsuak zeuden gauzak, hondatu baino lehen, hona ekarri zituen. Agiri asko berreskuratuz, irakurri eta katalogatu zituen informazio hori guztia gal ez zedin”.

Baztan aldetik, aitaren partez, aitona Pedro María Hualdek Madrilen eta Parisen ikasi zuen medikuntza. Hemen gogotik lan egiten zuen, baina ez zuen inoiz kobratzen. Jendeak ikaragarri maite zuen. Ederki mintzo zen euskaraz, Madrilen luzaro bizi izan arren. Aitak txikitzen hitz egiten zuen baina gero Zaragozara joan zen ikastera eta galdu egin zuen. Nik Donostian egin nituen unibertsitateko ikasketak, baina euskaraz ez nuen ikasi. Orain frantsesa ikasten ari naiz eta heldu den urtean euskara pixka bat ikasi nahi dut. Euskara jakitea gustatuko litzaidake etxea eta familiarenganako maitasunez eta uste dudalako Espainian derrigorrezkoa izan behar lukeela autonomia-erkidego guztietan atzerriko hizkuntzez gain, penintsulako hizkuntza bat ikastea. Andaluziarrek, katalanek... Denek. Ikasgai bezala. Hori litzateke gure arteko begirunea eta atxikimendua areagotzeko modu egokia. Hizkuntzak ez daitezela izan bereizteko eta elkar erasotzeko gaia, lotura baizik. Hona, esate baterako, frantziar asko etortzen da. Bisita egiten badiezu frantsesez, nahiz eta oso maila handia ez izan, ikaragarri eskertzen dute. Hemen hori gutxitzen egiten da. Bezeroei, turistei arreta egokia emateagatik eta edukazioagatik egin behar da.

Zure ama Aranzazu Ruíz de Gámiz y Zulueta, gaurko Casa Torreko markesa, interes handiz aritu izan da ondarea biltzen, ezta?


Amak 87 urte ditu eta osasunez pattal dabil. Duela hamabi bat urtera arte Donostian bizi zen, baina gaixotutakoan hona etortzea erabaki genuen. Familiak oso maitea du etxe hau, Iruñea eta Donostiatik gertu dago eta denon babeslekua izan da. Haurtzaroko denon etxea izan da eta txikitako bizipenak dira gehien hunkitzen gaituztenak. ■



Zenbat planeta kontsumitzen dituzu?

Ingurumenean norberak uzten duen arrastoa neurtzeko hainbat webgune daude Interneten. Horietako batera jo dugu, gure kontsumo maila eta sortutako hondakinak jasateko behar den lur eta ozeano eremua jakin nahian.

NEREA ODRIOZOLA LARRAÑAGA



Lurrak baliabide mugatuak dituen arren, mugarik gabe ustiatzen dugula erakusten du gure kontsumo mailak.

ANE ORION BIZI DA bikotekidearekin, lau solairudun blokeko etxebizitza batean, eta biek egiten dute lan etxetik kanpora. Donostian du lana Anek eta egunero autoz egiten du joan-etorria, ibilgailua lankide batekin partekatuz. Etxean, gas naturala eta elektrizitatea ditu energia-iturri, eta oro har denetarik jaten du. Birziklagarriak diren hondakinak birziklatu egiten ditu, eta zabor-poltsa bat inguru betetzen du astean. Aneren bizimodua sostengatzeko 34,20 hektarea global beharko lirateke urteko –Espainiako Estatuko batez bestekoaren azpitik–. Hektarea global bat, urte jakin batean biologikoki emankorra den azaleraren hektarea bat da, munduko batez besteko produktibitate bera duena. Alegia, munduko biztanle guztiak Ane bezala biziko bagina, urtean gurea bezalako 2,18 planeta beharko lirateke mundua jasangarria izateko.

Anek, lanera autoz joan ordez, egunero tren hartuko balu eta elektrizitatea eta ura aurrezteko ohitura batzuk hartuko balitu (gela batetik irtetea argia itzaltzea, inguruan ekoiztutako produktuak erostea...), bere

kontsumo maila jasateko behar den lur-eremua 17,92 hektarea globalera murriztu ahal luke, eta hala ere, denok bizimodu hori eramanez gero, urtean 1,14 planeta beharko genituzke. Aldiz, hasierako kontsumo maila mantentzeaz gain Anek birziklatzeari utziko balio, eta denek berdin jokatu bagenu, 2,62 planeta beharko lirateke hori sostengatzeko.

Gure egunerokoari buruzko hainbat galdera erantzunda jaso ditugu datuok, myfootprint.org webgunean. AEBetako Center for Sustainable Economy (Ekonomia Jasangarriko Zentroa) erakundearen gune honek bakoitzaren aztarna ekologikoaren berri ematen du, gizarte jasangarriagoa helburu. Gaur egun, munduan pertsona bakoitzak batez beste kontsumitzen duenarekin, baliabideak suntsitzen ari gara, gehiegi kontsumitzen dugu eta ez diogu inguruneari bere onera etortzen uzten.

Zehazki, galdetegiak neurtzen du zenbat lur eta ozeano eremu behar diren pertsona bakoitzak kontsumitutako energia, elikagaiak, ondasunak eta zerbitzuak mantentzeko eta sortutako hondakinak jasateko. Hektarea globaletan

neurtzen du pertsonon aztarna ekologikoa, eta horretarako, kontuan hartzen da ingurua, alegia, gure kontsumoaren inpaktua jasotzen duen ekosistemaren produktibitate biologikoa (biogaitasuna). Hala, Ane Orion bizi beharrean Hendaian biziko balitz, eta Donostiara ez, baizik eta Bidartera bidaiatuko balu egunero, bizimodu berdina eramanda ere aztarna txikiagoa eragingo luke: 23,49 hektarea global, eta 1,49 planeta.

Gobernu eta administrazioen eragina

Izan ere, Estatuaren tamainak eta gobernu bakoitzak energiaren, hondakinen, eraikuntza ereduaren, garraio publikoaren eta makina bat aldagairen inguruan hartutako politikek eragina dute aztarna ekologiko pertsonalean. Horregatik, garrantzitsua da politika orokorren norabidea, eta norbanakoaren eginbeharrez gain, gobernuak politika jasangarriak bultzatzea. Hondakinen kasuan, adibidez, horien %65a birziklatu, berrerabili eta konpostatuta aurretzen den negutegi efektudun gas kopurua, errepideetatik urtean 87 milioi auto kentzearen parekoa da, GAIA nazioarteko sarearen txostenaren arabera. %65a gainditzen duten herrietan, hor-

Estatuaren tamainak eta gobernu bakoitzak energiaren, hondakinen, eraikuntza ereduaren, garraioaren... inguruan hartutako politikek eragina dute aztarna ekologiko pertsonalean

taz, txikiagoa da herritarrek eragiten duten aztarna ekologikoa. Herri batzuek, gainera, herriaren ezaugarrietara egokitutako galdetegi prestatu dute, esaterako Zarautzek: www.aztarnaekologikoa.org.

Energia-iturriei dagokienez, adibidez, EAEn kontsumitzen den energiaren %5a pasatxo baino ez da berriztagarria eta bertan ekoitzia. Urrun ekoizten den energiaren kasuan, gainera, energia ekoizteak duen kontsumoari garraioarena gehitu behar zaio. Energia xahutuz kilometroak egiten dituzten elikagaiak ekarri beharrean inguruan ekoiztirikoak kontsumituz, eta barne-merkatua bultzatuz, alferrikako gastua aurreztuko genuke. Laburtuz, kontsumoa murrizteko eta kontsumo horren ondorioak ahalik eta modu egokienean kudeatzeko konpromisoa hartuz gero, gure aztarna ekologikoa txikitzea lortuko genuke.

Eskola ekologikoa

Aztarna ekologikoa murrizteko eredu aproposa aurkitu dugu Ekuadorko Galapago uhartetan. Galapagoak ia osotasunean parke naturala dira, lurren %3an baino ez dago baimendua

ZIENTZIA UDALEKUAK 2012



**Izan ausarta
eman izena, eta bizi
uda zirraragarri bat!
Aurtengo udan,
zientziaz blai!**

Abentura, esperimentuak, natura,
ur-jolasak, irteerak...
Aprobetxatu eta gozatu udaz,
gozatu zientziaz.

12-14
urte

14-16
urte

Izena emateko epea:
Martxoaren 19tik apirilaren 1era

Izen-emateak eta informazio gehiago:
<http://udalekuak.elhuyar.org>
943 36 30 40 (ordutegia 9.00-14.00)





bizitzea eta gizateriaren ondare eta itsas-erreserba izendapenak dituzte. Testuinguru horretan kokatu behar dugu Santa Cruz uhartean dagoen Tomas de Berlanga ikastetxea. Eskola pribatua da, baina bitartekorik ez daukanarentzat bekak ematen dituzte eta 1994an jaio zenetik, ingurunean ahalik eta eragin txikiena sortzea izan du xede. Iaz, Galapagos ICE Gobernuz Kanpoko Erakundearekin lankidetzat abiatu zuten eta Eskola Berdeak programaren baitan, laguntza tekniko eskaini die GKE-ak, ikastetxe jasangarria izateko bidean.

Heidi-Lynn Mitchell Galapagos ICE elkarreko boluntarioa da eta Tomas de Berlanga ikastetxean aritu da lanean. Proiektuari buruz galdetu diogu enpresetako ingurumen kudeaketan aditu den geologo estatubatuarri.

Zehazki zer egitera joan zinen Tomas de Berlangara?

Ni joaterako aurreratuta zeuden hainbat gaitan. Aurreko proiektu batzuen eraginez, bazeuzkaten berrerabilitako edo birziklatutako materialekin eginko lekuak. Nire proiektuak hiru helburu zeuzkan hasiera batean: eskolaren azterna ekologikoa neurtzea, irakasleentzako ikasmateriala bilatu eta prestatzea, eta aldaketa klimatikoaren eta jasangarritasunaren inguruan daukadan jakintza haiekin partekatzea. Iritsi nintzenez, beste bi egiteko jarri zizkidaten: erosiko zuten informatika ekipamenduaren jasangarritasuna ebaluatzea, eta ordenagailu-gela osasuntsuagoa proposatzea (obrak egitekoak ziren).

Aztarna ekologikoari lotuta zein ariketa egin zenuten?

Aztarnak energia, garraioa, birziklatzea, janaria eta ura hartzen ditu kontuan, batez ere. Neurketa ikastetxeko datuetatik abiatuta egin da. Nik Dott07 Ingalaterrako Northeast Region-eko aholkularitzak eginiko neurgailua hartu, Galapago uharteetara egokitu eta itzuli egin nuen. Hots, Ingalaterrako Best Foot Forward aholkularitzak egin dituen neurgailuetan dago oinarrituta.

Berezia da ikastetxea. Zuhaitz artean kokatua dago, Puerto Ayora herri nagusitik 4 kilo-

Goian, Galapagoetako Tomas de Berlanga ikastetxe jasangarria eta Heidi Lynn Mitchell geologoa, berak utzitako argazkietan.

"Galapagoetako eskolan barazki organikoen baratzea egiten hasi dira eta teilatuan euri-ura biltzeko sistema jarri dute"

HEIKI LYNN MITCHELL, GEOLOGOA

metrora, Santa Cruz irlan. Bananduta daude ikasgelak eta aluminiozko sabaia dute guztiek, baina pareta eta sabaiaren artean 1 eta 1,5 metro arteko irekidura dute, natura ikasgeletan sar dadin. Bestalde, Eskola Berdea programako batzorde berria barazki organikoen baratzea egiten hasi da, eta haur-hezkuntzako ikasgelako teilatuan euri-ura biltzeko sistema jarri dute –sistema teilatu gehiagora zabaltzeko asmoa dago–. Irletako klima dela-eta, ura ondasun urria eta oso garestia da, nahiz eta eskola dagoen eskualdeak euri dezente jasotzen duen.

Ikastetxetik aparte, Galapagoetan ba al dago sistema jasangarri berezirik?

Zabor-bilketan nahiko aurreratuta daude, munduko batez bestekoarekin alderatzen baditugu datuak. 2010ean zaborraren inguruan egindako txostenaren arabera, Santa Cruz irlan zaborraren %50a ari dira birziklatzen, eta aurten hasi dira etxetako olio erabilia bereizita jasotzen –jate txiki eta itsasontzietakoa lehenago ere jasotzen zen–. Ez da sistema perfektua, baina Ekuadorren eta munduan baino gehiago ari dira birziklatzen. Energiari dagokionez, eguzki-plakak eta eolikoak jartzeko programa dute abian. Egungo dieselaren erabilera urte gutxitan %80 murriztea helburu duen plana ere martxan dute. Erronka handia da,

beren behar energetikoen %80a energia berriztagarrien bidez asetzea lortzen badute munduan puntako artean egongo baitira –Eskandinaviako irla batzuek lortu dute jada–.

Nolakoa da Galapagoetako egoera soziala?

Ez naiz aditua gaian, baina datu batzuk eman diezazkizuket. Irletako batez besteko errenta kontinenteko Ekuadorko baino altuagoa da eta biztanleriaren hazkundeak %6koa da urtean. Arazo sozialak eta desberdintasun sozialak ugariak dira, hezkuntzari lotuta adibidez neska gazteen haurdunaldiak –2008an jaio ziren umeen %80aren gurasoak 19 urte-tik beherakoak ziren–. Bestalde, zaila da bertara lanera joaten den jendea ingurumenarekiko eta ingurunea zaintzearekiko sentsibilizatzea. ■



• Euskal Herrian Ihesi webgunea •

Osa dezagun gure gida sarean

Aldizkarian Ihesi sailak urte luzez egin duen gisa, Interneten ere Euskal Herria bertatik bertara ezagutzeko eta gure txokoez gozatzeko aukera ugari bildu nahi izan ditugu. Tokiko informazio osoa duzu www.ihesi.com helbidean.

IRATI SARASUA ARABAOLAZA

NOIZ DIRA Ezpeletako festak? Lizarrara joaten banaiz, non bazkaldu dezaket? Orion zer bisitatu beharko nuke? Denon artean erantzun ahal izango ditugu hau bezalako galderak hemendik aurrera. Euskal Herriko zazpi lurraldeak bere baitan hartzen dituen euskarazko turismo webgunea sortu du ARGIAk, halakorik ez dagoela ikusita. Makina bat udalerritako informazioa jasotzen eta eskaintzen du webguneak, lurraldeka, zonaldeka nahiz gomendio bidez sailkatuta. Pixkanaka, udalerrri guztiak biltzea da helburua.

Herritarren parte-hartzea, hori da gunearen berezitasunik handienetakoa. Izan ere, oinarritzko informazioaren gainean, erabiltzaileek beraiek egiten dituzten proposamenak dira weba elikatzen eta aberasten joango direnak. Hala, erabiltzaileak bere herriko edo ezagutzen dituen lekuetako aukerarik onenak gomendatu ditzake. Gainerakoek emandako boto kopuruaren esku egongo da proposamen bakoitza zerrendan gorago edo beherago agertzea. Zenbat eta leku gehiagotako proposamenak bildu, orduan eta osatuagoa izango da Euskal Herri osoari buruz herritarrek eskura izango duen informazioa. Denborarekin, parte-hartze irekiari esker, webgunea jendearen gomendio interesgarriaz jantzitako datu-base erraldoi bihurtzea da asmoa.

Bestalde, publizitatea jartzeko tartea ere izango du edonork. Herri bakoitzean, adibidez, bannerrak jartzeko aukera eskaintzen da, modu berritzailean: zuzenean, “Jarri zure bannerra” atalean sar daiteke nahi duena, eta hor barruan, nahi duen publizitatearen tamaina hautatu dezake, baita zenbat egunez ager-



tzea gustatuko litzaiokeen ere. Automatizatu-ta dago dena, baita ordainketa ere.

Laburtuz, Euskal Herriko bazterren xehetasun eta bitxikeriak jakin nahi dituenari eta norbere proposamenak gainerakoen esku utzi nahi dituenari zuzendutako gunea da hau, herrietako informazio praktikoa eta aberasgarria eskaintzeko xedez. Euskal Herria elkarri hurbilduz, gure herria hobeto ezagutu dezagun, eta gehiago goza dezagun. ■



TTAKUN (H)ERRENKA

Fikzioaren alde (eta II)

Tira, hilabetetan elkar ezin ongi uztartu ibili ondoren utziko didazue, beste behin eta azkenez, errenkaz aldatzen. Izan ere, honakoak izango ditugu gure azkeneko ttakunak, eta honakoa, honen bestez, nire hondarrekoa.

Ezin ongi uztartu ibili garela esan dut eta anitzek pentsatuko dute ezin ongi moldatu ibili garela. Galdetu izan didate: “Aizu, zuek ez zarete ondo konpontzen ezta?”. Aipatu izan dugu euskarazko prentsa arrosaren behar hori, *Kaixo!* edo *Holaxe!* delakoaren beharra, eta akaso gurea abiapuntu egokia litzateke, eskusiba batzuk salduz, dirutxo batzuk ateratzeko. Baldin eta inori axola bazaizkio gure arteko gorabeherak, jakina.

Idazleok ez ei baikara ubera jakin bati jarraitu errazak, eta halaxe ibili gara, kulunka bat nola, alde batetik bestera zabuka. Zer esanik ez hirutik bi poeta ustekoak badira; bai, ez da harritzekoa ttakunak hondoa jo izana. Imajinatzen duzue, adibidez, Hedoi Etxarte eta Angel Erro *Ttakun (h)errenka* berean? Bata Leninen kontuak hizpide, bestea alejandrino batean Aitor Zubietaren gaineko azkenekoa ahokatu (barkatu Angel, ez dut hitz egokiagorik aurkitu) nahian. Nekez atarra-mentu onik.

Baina morboaren zaleen zoritxarrerako argitu nahi dut ez garela batere gaizki konpontzen gure artean (Jose Luis, Uxue, eskura utzi dizuet gezurtatzea). Iruditzen zait joera handiegia dugula idazleen testuak oso serio hartzekoa, batez ere zutabeak, eta edozein ika-mika itxurazkori garrantzi handiegia ematekoa. Ohituegiak gaude iritzi artikulua eta txosten politiko serioetara, non hitz bakoitza historiara igaroko denaren hotsandiz idatzia baitago, eta hala, ez gara gai irakurtzeko beste modu bizkor eta zaluagoan prentsan publikatzen

MARC CAMPÁ



Beñat Sarasola



Apalolaza



Padron

dena. Gaizki ulertu ugari zenbatu ahal daitezke, ez soilik ttakunei dagokionez, arazo soil honengatik bakarrik. Hamaika eta bat aldiz esan izan dut baina ez zait ardura berriz ere errepikatzea: literaturak —eta arteak oro har— eskatzen duen irakurketa moldeari dagokion analfabetismo maila aski

kezkarria da Euskal Herrian. Horren adibide garbiena etengabe entzuten dugun euskara, prosa eta literatura “erraza”ren aldarria dugu, baina arestian aipatutakoa ez dabil aparte.

Harritzeko-harritzekoa ere ez da; izan ere, non dugu Euskal Herrian irakurketa molde hori lantzeko taxuzko lekuri? Zenbat euskal filologia ikasle joaten da Literatura Eskola, irakurle klub eta enparauetara, “karreraren literatura apenas ematen dugu” esanez? Euskal Herrian esanahi zehatz, itxi eta seguruak hobesten ditugu. Izan duela ez dakit non azaldu grafitoetako hitzena, izan gure herriaren “baldintza objektibo eta estrategiko”ei dagokiena. Fikziozko biraketa txikiena, kasurik onenean, ez da ulertzen; kasurik okerrenean, gutxietsi egiten da apatatsu, konpromiso zein garrantzi bakoa delakoan. Baina ez zen alferrik *funtxio poetikoa* erdigune Roman Jakobson-en taulan. Fikzioaren benetako muinetara ailegatu den edonork daki-eta, ez dagoela egia borobilagorik fikziozkoa baino.

Horregatik amaitu nahi nuen ibilaldi hau nire ttakun kideen aldarri txikia egiten. Ez

soilik Ana, Jose Luis eta Uxuena, aurretik egon direnena orobat. Eta, bidenabar, idazle, musikari eta artista guztiena. Egiten dutena gehiago edo gutxiago gustatu, miresten dut mundu laukitu eta aspergarriari zinezko erresistentzia egiten saiatzen den jendea oro. Finean, beti paratuko naiz haien alde. Haientzat, beraz, begirunez, nire azkeneko hau. ■



Fikzioaren benetako muinetara
ailegatu den edonork daki-eta,
ez dagoela egia borobilagorik
fikziozkoa baino

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Iñaki Barrena

EKOLOGISTAK MARTXANEKO KIDEA

Zaramaren kontuak eta kostuak



dal instituzio politikoek arazo larria izan dute beti zaramarekin. Etxeko zaborrak udalek kudeatu behar dituzte eta hor xahutzen da udalen aurrekontuen atal garrantzitsu bat.

Hots, zaramaren inguruan diru asko mugitzen da. Gure etxeetatik ateratzen den unetik merkantzia berria da eta bere pisu eta kalitatearen arabera prezio bat jasotzen du.

Duela ia hogeit urte, Zergarbi eta Zabalgarbi izan ziren Gipuzkoa eta Bizkaian etxeko zaramak erretzeko proiektuak. Zergarbi ez zen onartu bere kostu altuarengatik, baina Bizkaian, Erandioko herriak ukatu eta gero, Bilboko mendi punta batean errauskailua ezarri zen duela zortzi urte. Protesta asko egon zen, baina azkenean zaramak erretzeari bidea zabaltu zitzaion. Bizkaiko ekologisten ustez, birziklatze programa egokia martxan jarritz gero, askoz merkeago egin zitekeen, Lizarraldean probatu zen moduan. Han zaramaren %70 birziklatzen zen, baina hori ez zen Bizkaian posible izan, agintari politiko eta “enpresa-aditu” batzuen aburuak tarteko, eta zarama erre egin behar izan zen.

Pasa den hilean, Zergarbirekin gertatu zen moduan, Bizkaiko bigarren errauskailuaren proiektua bertan behera gelditu da. Ez dago zarama nahikorik negozio berria egiteko. Ingurumen diputatuak aitortu du zaramaren %70 birziklatzen dela eta zarama gutxia-



INIGO AZKONA



Zergarbirekin gertatu zen moduan, Bizkaiko bigarren errauskailuaren proiektua bertan behera gelditu da. Ez dago zarama nahikorik negozio berria egiteko



go ekoizten dela, krisiaren eraginez. Eta derrepentean Bizkaiko zabortegietara Gipuzkoatik duela hiru urtetik ekartzen diren zaramak arazo nagusizat jotzen da.

Gipuzkoako errauskailuaren proiektua geldituta dago eta atez ateko ereduari bultzada berria eman nahi zaio, ekologista eta herritar kezkatuen asmoari jarraituz. Alabaina, negozio gizonen berriz diote zaramak erretzea merkeagoa dela.

Beste politika publikoetan bezala, krisi eta murrizketen garaian, kostu ekonomikoa da, antza, irizpide bakarra. Eta zenbakiekin trampa egiten dute. Merkeena beti da zarama gutxiago mugitzea, eta aldiz, zaramarekin negozioa egiteko, ahalik eta gehien hobe.

Zarama ez da herrialde batetik bestera eramane behar, horrela batzuek mozkin ederra egiten baitute. Zarama bereiztea da bidea, zarama gutxiago eta udal aurrekontu baxuagoak izateko. Jendearen inplikazioa eta herritarren jarduera berriekin zaramaren kostuak jaitsi daitezke. Baina Sener, FCC eta bestelako zaborren enpresariei eta eurekin diru publikoa banatzen duten partiduei ez zaie interesatzen.

Egin ditzagun ondo zaramen kontuak eta Gipuzkoan bezala Euskal Herriko udalerriz guztietan atez ate moduko ereduaren aldeko jarrera nabarmenduko da. ■



TXANDAN

Castillo Suarez



Badut lagun bat esaten duena gero eta gutxiagotan ausartzen dela jendaurrean esatera kontentu bizi dela, eta lotsa ematen diola egiten dituen erosketak, txikiak badira ere, aitortzeak.

Eta badu arrazoi puska bat: alaitasuna gaizki ikusia dago gurean krisian sartu ginenez geroztik, eta askoz okerrago dago ikusia dirua alaitasunez gastatzea. Ematen du lotsa ematen digula oporretara joango garela esatea, galtza berriak erosi ditugula edo afaltzera joan garela lagunekin jabetxe batera. Ez diegula elkartasunik adierazten gu baino okerra-

Debekatua pozik egotea

go pasatzen ari direnei, ez garela jabetzen egoeraren makurraz. Baina ezinezkoa da eguneko 24 orduak arduratuta pasatzea lanik gabe dugun nebarengatik, koinatuaren enpresa ixteko arriskuaz, amaginarreba zaintzeagatik galdutako diru-laguntzaz eta egoera ekonomikoro korraz oro har. Beti bada zer ospatu. Beti bada kontentu egoteko arrazoiaren bat. Beti badugu nori eskerrak eman. Beti. Izan ere, zaila da krisiaren ondorioak ez pairatu izana, baina horrek ez du esan nahi alaitasunerako arrazoi guztiak desagertu direnik. ■



Pili Yoldi

KAZETARIA

A ze plana!

Iruñeko kultur egoera dugu mintzagai udaberri hasierako lehortegai hauetan. Adituek diotenez, kultura eskaintza gutxi, desorekatua eta zentralizatua dugu iruindarrok. Azken lau urte hauetan, %30 jaitsi da kultur ekitaldietarako aurrekontua; eskaintza kulturalari dagokionez, Mendillorri, Txantrea edo Arrosadia bezalako auzoak galtzaile ateratzen dira eta —erraz asmatu duzuen bezala, lagunak— euskara da arlo guztien arteko partidarik kaltetuena.

Aurkeztu berri den Iruñeko Bizkortasun Diagnostikoari esker, datu hauek guztiak eta beste hainbeste ezagutu ditugu. Hirian ematen den kultura eskaintza “koordinaziorik gabekoa” da eta “ez da berritzailea”. Gainera, adituen %90ek uste dute Iruñeko Udalak ematen duen eskaintza ez dela “nahikoa”. Horiek adibideak. Egia esan, hau guztia ondorioztatzeko ez dakit holako ikerketa bat beharrezkoa zen. Kultura Plan Estrategikoa deitzen dute eta martxan dago pasa den ekainaz geroztik. 2010eko urrian, Donostiak irabazi zuen 2016ko Kultur Hiriburu Lehiaketan galdu eta gero —Iruñeko Udalak UPN eta Yolanda Barcina buru zituela—, lanari jarraipena emango ziotela hitzeman zuten serio demonio, eta horretarako aipatutako Plan Estrategikoa eratuko zutela, falta gabe.



JOSU SANTESEBAN



Datu falta,
denbora gutxi eta
parte-hartze eskasa
argudiatuz, diagnostikoa
besterik ez omen dute
epean entregatu; ondoren
UPNk kontratua eten
egin du eta Plana bertan
behera uztea erabaki



Aurrekontua osatu, lana lehian jarri eta KEN izeneko publizitate enpresak eraman zuen, 2011ko abenduan diagnostiko, ondorioak eta plana bera aurkezteko konpromisoarekin. Baina datu falta, denbora gutxi eta parte-hartze eskasa argudiatuz, diagnostikoa besterik ez omen dute epean entregatu; ondoren, UPNk kontratua eten egin du eta Plana bertan behera uztea erabaki. Gaizki hasitakoa —hedabideetan ateratzeko soilik—, gaizki eramana eta bukatu gabeko Plana —deitutako 200 eragiletik, 80k baino ez zuten erantzun—.

Itxura guztien arabera, buruhaustez askatzeko bidea aurkitu du Fermin Alonso Kultura zinegotziak. Ez oso modu elegantean, baina hiritarren babesik ez zuen ekimenaz libratzeko modu bat da.

Total, zer dira gastatutako 30.000 eurotxo horiek? Txanpon txiki bat udalarentzat eta hil ala biziko zenbakia ixteko zorian dagoen ENT bezalako antzerki eskola edo ito larrian dabilen IPES bezalako institutua eta emakumeen liburutegientzat. Iruñean kultura letra larriz egiten urteak daramatzaten bi adibide besterik ez aipatzeagatik.

Ez dakit Plan batek lehortegai kultural hau konponduko lukeen... Baina planik gabe ere, a ze plana gurea! ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



dabil langabea beharra eragile, alderdiaren sindikatuaren karta pasaporte, ogibidea xede ate zaintzaileren baten bila. Futbol zelaian kadete mailako partida batean gaude. Belarri adi, begiz argi ari naiz ondoko lau lagunena entzuten. Zaborra dute ahoan FCC gogoan, atez ateko bilketa mamu. Jendea beharko omen da sistema berrian. Orain arteko atek ez omen dute linboa irekitzen. Ez dute arretaz jarraitzen jokoa, ohi ez bezala bakean uzten dituzte jokalaria eta arbitroa. Zein ate jo beharko duten dute arazo. Zeudenak ez daude, dau-denak ez zeuden. Elkar berotuz epelak jaurtitzen ari

Atez ate

dira egoera berriaren aurrean, omen, asmatu ezinik. Ikasi behar omen da birziklatze kontuetan, biltzeaz gain hiritarrak laguntzeko. Bilkurak ba omen daude, baina etxeetako bereizketari buruzkoak soilik. Batek erabakitzen du, FCCko erdi mailako arduradun bati telefonoz kontsultatzea. Urruntzen da eta bat-bi minuturen buruan hurbiltzen da. Ez dago zereginik, euskara jakitea ezinbesteko baldintza omen. Euskararik gabe ez dago ogibiderik. Marmarka hasi dira eta aldentzea erabakitzen dut. Partidaren emaitza jakin nahi dute. Euskaraz eman diet. Ulertu dute. ■



BERTSO BERRIAK

Uxue Alberdi

Erditze baten kronika

I

Goizeko ordubatean
le(he)nbiziko uzkurdura,
ta izterretatik be(he)ra
tantaka hasi zait ura.
Unea iritsi al da?
biok egin dugu duda,
barealdiak ez dira
heltzen bost-sei minutura.
Mutila dantzan hasi da,
behar da hau eta hura!
Ni logelan biluztu naiz,
has dadila abentura:
nire gorputza bi zati
egiteko prestatu da.

II

Etxe hontan jaio ziren
gure aita ta amona,
amonaren ama eta
birramonaren aitona.
Zilborresteen kateak
biltzen dituzten lau horma,
familiako emeen
memoriak duen forma.
Horren sentitzen naiz ziur,
hain da sentsazio on
erdiminaren erdian
dudan sentipen sakona:
denak niri laguntzera
etorri direla hona.

III

Ordubietan puntuan
jo du Elisak txirrina.
Mutilak abixatu dit,
iritsi da emagina.
Kafea eskaini dio
—beltza, zerua adina—;
esan diot *gehixego*
prestatu izan bagina...
Guk uste baino le(he)nago
dator etxeko sorgina!
Erantzun dit *egin (e)zazu*
lasaitzeko abalegina:
bizia basatia da
eta kontrolaezina.



ANDONI OTAMENDI

IV

Izara za(ha)rrak zabaldu
ditu besaulki gainera,
haizez puztu eta urez
goraino bete bainera.
Esan dit *zelan, lastana,*
badator mina ostera?
Lepotik heldu diot ta
intziri bat zait atera.
Haurrari hitz egiteko
sartu naiz nire barnera:
abandonatu gaitzen
zu butsera, ni minera,
erditu eta osatu
gaitzen biok batera.

V

Barreneko pasabide,
barreneko zirrikitu,
ireki zaitez pixkana,
handitu zaitez, handitu.
Arnasa dut epidural,
kontzientzia mediku,
minak esaten dit nola
eta norantza mugitu.
Buruari joaten utzi
ta gorputzari aditu,
barealdiak gozatu,
oinazea, errenditu...
Nire buruaz hain ziur
ez naiz sekula sentitu.

VI

Nola txalupa txikiak
itsas-enbaten menpeko
minaren olatuetan
galdu naiz dagoeneko.
Ez diot kontra egiten,
eta horrela hobeto:
oinazearekin bals bat
dantzatzearen pareko.
Lau ordutan zabaldu naiz
jada hamar zentimetro,
orroak erraieratik
datoz niri esateko
gutxi falta dela zure
aurpegia ikusteko.

VII

Baineratik nekez noa
sofa trapuz tapatura,
lau-hankatan ipini naiz,
sentitutako modura.
Erditike hantxi behar naiz!
etorri arren burura,
indarrez egin dut bultza,
presioa, erredura...
Ta bat-batean entzun dut
burutxoa agertu da!
Aitatxok atera zaitu
ta pasa nire eskura.
Zer moduz zaude, txikitxo?
Ongi etorri mundura!

VIII

Orain besoetan zaitut
—eguna sortzen ari da—
izerdia ta odola
biziaren usain dira.
Nire bularra eraman
dizut zure belarrira:
bizi-gose, azal-gose
zatoz amaren titira.
Begiak zabal-zabalik
al zatoz mundu berrira?
Zazpiak hoge gutxitan
heldu zara Getarira:
lehen arnasa emanaz
itsasoari begira.



DOINUA: ETAre su etenean



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Requiem bat Musikherriari

Zazpi urtean egindako bidea bukatutzat eman dute Musikherria kolektiboko kideek martxoaren hasieran. Euskal Herri osoko talde hasiberrientzat sortu zen plataforma eta 82 lan eman ditu argitara, denak autoekoiztuak eta lizentzia libredunak. Baina egitasmoaren sua itzaltzen joan da urteekin. Zergatik?

GORKA BEREZIARTUA



“NAHIKO ERRETA bukatu dugu” dio Unai Bergara Musikherriako kideak eta Oliba Gorriak taldeko bateria-jotzaileak. “Azkenean musikari buruz geneukan paradigma guretzat dogma bilakatu da, askatzailea izan behar zena guztiz kontrakoa bihurtu da nire iritziz. Beste diskoetxeen funtzionamendua errepikatu dugu, azken urteotan bilkurak oso gutxi izan dira... Hasieran eztanda izan zena hor bukatu zen”. Doinu autokritiko bera du kolektiboak agurraren berri emateko atera duen idatziak ere. Amaierak ez daukala zerikusirik kapitalismoaren krisiarekin, kolektiboaren erritmo eta jarraikortasun faltagatik ideiak tiraderan hautsa hartzen geratu direla

Musikherria 2005ean aurkeztu zen Bilboko Kalderapekon.

eta momentu batetik aurrera, Musikherria bera bihurtu dela kontzeptu berriak kalera ateratzeko oztopo.

Bukatu baldin bada, bukatu da, baina ate bat ixteak ez du esan nahi bestaldean ezer geratzen ez denik. 2005. urteko martxoan antolatutako Gaztemugi topaketetan erein zen Musikherriaren hazia, nahiz eta lehenago ere Gaztesarea atarian gaiari buruz franko eztabaidatzen ari ziren. Eta oraindik ere, eztabaidarako puntu gisa balio dezakete orduan plazaratutako gaiek: musika pribatizatzea eta kontsumo-produktu soil bihurtzea, kontzertu txikiak indartzeko premia, musikarien profesionalizazioa, copyleftak eskaintzen dituen

aukerak... Panorama asko aldatu da zazpi urtean, baina bistan da marko orokorrak antzekoa izaten jarraitzen duela bai musika-rientzat, baita zaletuentzat ere; eta beraz, marko hori auzitan jarri nahi duenak antzeko galderak egin beharko dizkiola bere buruari. Musikherria abian jarri zutenek beren erantzunak bilatu zituzten: diskoetxea martxan zegoen urte bereko urrian, autogestioan eta auzolanean oinarritua, mota guztietako musikak plazaratzeko eta lehen urratsak egiten ari zirenei ekoizpen-baliabideak eskura jartzeko asmoz. Klaserik gabe, artisten artean bereizketarik egin gabe, maketa/disko dikotomia puskatu nahian. 40 talde baino gehiago ageri dira Bilboko Kalderapekon ateratako familia-argazkian.

Bergarak azaldu du nola antolamendua asanblearioa izan zen hasieran, eta nola gero lantalde zehatzagoak sortu ziren, komunikaziorako, adibidez. Diskoetxe hutsa baino gehiago izan gura du eta bestelako eredu kulturala bultzatzen duten guneetan hasiko dira ozen entzuten plataforma berriko musikarien kantak. 2005 eta 2006 urteen artean antolatutako Gaztetxe Bira da horren lekuko: nazio osoko 40 zentro sozial autogestionatutara iritsiko dira Musikherriako taldeak.

Banaketa, zailtasun gaindiezina

Dendetan saltzen diren diskoen prezioak, produzitzea kostatzen dena baino askoz garestiago merkataturatzen dira, bitartekariak—batez ere banatzaileek—tartaren puska handi bat eramaten dutelako. Musikherriak buruan hartu zuen diskoak merkeago argitaratzea —3 eta 5 euroan daude salgai katalogoko lan asko—, eta horretarako beharrezkoa zen CDak bestela banatzeko sistema asmatzea. “Bageneukan sare bat antolatzeko ideia, baina ez dago dirurik, ez dago azpiegiturarik eta tabernetan jartzen genituen CDak salgai; baina tabernak ez dira CDak saltzeko tokiak” dio Bergarak.

Denborak ere higatu du proiektua, hasieran parte hartu zuten taldeak desegiten joan diren heinean ez direlako beste batzuk sartu lekukoa hartzera. “Gure lan egiteko modua posta-zerrendan oinarritu da eta oso zaila da hainbeste jende koordinatzea, jakinda talde bakoitza mundu bat dela. Talde gutxi mantendu dira hasieratik, gehienak hasiberriak ginen eta normala da batzuk desagertzen joatea. Baina horrela lan egitea ez da batere erraza. Egon da jendea kristoren gogoekin, eta halako batean taldea pikutara joan da eta

bidean geratu dira”. Desegin barik, hazi diren taldeentzat ere, momentu batetik aurrera motz geratu da Musikherria, Bergararen ustez: “Astebururo jotzen aritu den talde batentzat ez da izan, beharbada, plataforma egokiena, hasiberriek aukerak emateko sortu zelako”.

Badago gauzak bestela egiterik

“Ezagutzen ez genuen mundu batean sartu ginen. Egin dugun lana positibotzat jotzen dut, baina erronka oso handia zen. Hasieran geunden pertsona guztiekin jarraitu izan bage-nu zer edo zer egingo genuen, baina bukaerarako karga modura hartu dute lanean aritu direnek”. Plataformak esparru zabalegia hartu nahi ez ote zuen galdetu diogu Bergarari, azken finean, Euskal Herri osoko musikariak koordinatu nahi zituen-eta. Beharbada baietz dio, eta maila lokalagoan, Musikherriatik sortu diren pla-

taformek, antzeko ikuspegiarekin lan egiten dutenek, funtzionatzen segitzen dutela aipatu du, Arabako Musikgerrilla kolektiboak, berbarako. Elkartzeko arrazoia geografikoki hurbil egotea bezainbeste izan daiteke musika ulertzeko modua edo taldeen arteko harreman ona. Gakoa, beste edozein elkartetan bezala zera da, kolektiboari eskaintzen zaion denborak eta lanak trukean zerbait ekarri behar diola musikariari. Inertziak janda, Musikherriak azkenerako ardura eskatu bai, baina ez zuela ezer eskaintzen esplikatu du Bergarak. Hobe berandu baino lehen atea ixtea beraz. Kolektiboak funtzionatzeko zeuzkan sos apurrak Lodosako Ibaialde ikas-tolari ematea erabaki du.

Aurrera egiteko ezintasuna eta artikulua hau ia osorik hartu duen autokritika gorabehera, Musikherriak gauza interesgarriak ekarri dizkio Euskal Herriko musika panoramari. Lizentzia libreen aldeko postura egin izan ez balute, beharbada gaur egun ez ziren hain zabalduta egongo gure artean; eta ohiko diskoetxeen eredutik harago, esploratzea merezi duten lurraldeak daudela ere argiago dago orain 2005. urtean baino. “Badakit eragin dugula eta gaur egun jendeak hobeto pentsatzen du zein diskotan gastatu dirua eta zeinetan ez; igual izan gara plataforma bat taldeei sinesgarritasuna emateko. Izan gara motore bat, esanez ea zer ostia zen hau, kristoren dirutzak inbertitzen zirela musikan. Erakutsi dugu gauzak egiteko beste modu bat dagoela”. ■



Zinema

‘Xora’-k asmatu du Jinkoak sortzen... eta desegiten

Pelikula zubereraz grabatu dute eta berezitasun hori azpimarratu dugu kazetariok estreinatu aurretik Xorari buruz hitz egitean, horrelakorik egiten den lehenbiziko aldia delako, baina behin filma bukatu eta ikusgai egongo den honetan, ez dut uste bidezkoa denik ezaugarri horrekin tematzea, Peio Cachenautek zuzendutako lanaren alderdi esanguratsuenaz ahaztea litzateke eta.

GORKA BEREZIARTUA

IDAZTEAREN eta bulegoko lan arrunta edukitzearen artean erabaki beharrean den gaztea (Jef Goihenepe) da protagonista eta haren osabak, “Hollywood” ezizenena daukan idazleak (Titika Rekalt), ematen dio kontrapuntua. Rekaltaren pertsonaiak berak iradokitzen du hasiera-hasieratik, beharbada, ez gaudela %100 klabe errealdetan ikusi behar den istorio baten aurrean: *cowboy* baten modura doa jantzita, ezkerreko begia piraten antzera estalita; eta ilobarekin dauzkan elkarriketetatik halako misterio giro bat zabaltzen hasiko da. Baina gainontzean, denak normala dirudi. *Tempo* lasaiak eta plano luzeek ere eman dezakete aditzera, nahiz eta baden film osoa hartzen duen tentsio zehazgabe bat, ezinegon bat; pertsonalki, *Twin peaks* telesaila hein batean gogora ekarri didan atmosfera –hain zuzen David Lynch aipatu zuen Cachenautek, filmaren errodojeari buruz Mikel Asurmendik ARGIAren 2.291. zenbakian egin erreportajea—. Musikaren erabilera egokiak eta nondik datorren ez dakigun off-eko aho-tsak laguntzen dute giro hori sortzen.

Osagarri onak dira, gainera, protagonistak gradualki biziko duen noraeza janzteko. Neska-lagunarekin, adiskideekin edo bulegoko nagusiarekin hizketan ikusiko dugu, eta idazten; eta istorioak aurrera egin ahala geroz eta galduago egongo da, geroz eta bakartuago, horren kausa zein den ez dakigun arren. Inguruan jazoko diren gertakari lazgarriak, osabak idatzitako nobela lodi batek istorioan hartuko duen garrantziak eta atzetik dabilen beltzez jantzitako tipoak, are misterio-tsua bihurtuko dute dena.

Pasarte batzuetan ikuslea apur bat gal daiten apika, istorioak errealdismoa puskatu

XORAK UTZIA



Jef Goihenepe, *Xora* filmeko protagonista, errodojea.

gabe arrakalatu egiten baitu handik eta hemendik; ez du kontakizun fantastiko izaterainoko pausoa ematen, baina mugan dabil etengabe. Eta fikzio mailen arteko jolasa ere planteatzen du, kontua gehiago kiribiltzeko. Tematika aldetik, hainbat bikoiztasunen artean eraikitako filma da *Xora*: errealdeta/fantasia, bizitza/heriotza, idazle bizimodu/soldatapeko lana... Gai klasikoak, unibertsalak, baina orain arte inoiz zinemaratu ez zen testuingurutik kontatuak.

Ulertuko duzue, orain artekoa esanda, zergatik idatzi duen testu honen lehenbiziko esaldia. *Xorak* kontuan hartzeko moduko apustua dauka atzean eta esango nuke egileek asmatu dutela Jainkoak sortzen... eta desegiten. ■



Maskaradak

Krisiaren atetik sartu dira berrikuntzak

“Maskaradarik ez da izanen datorren urtean Zuberoan”, hala adierazi genuen hainbat hedabidek 2011ren hondarrean, jakin gabe iragarpen hori ustel bilakatzeko lehen urratsak ematen hasiak zirela Xiberoko Ikastoletako Ikasle Ohien (XIIIO) elkarteko zenbait kide.

Emango dira, bai, maskaradak aurten. Alde askotatik ezohikoak izango dira, eta baliteke usadiotik aldendu diren ezaugarrietako batzuetan egotea, justuki, maskaraden iraupenaren giltzak.

UNAI BREA

Argazkia: Axier Lopez

EZ DA LEHEN ALDIA IZANGO, gerora arrakasta duen ekimen bat ordu txikietan eta alkohol pixka baten laguntzarekin sortu dela. XIIIOko kideek ez dute lotsarik aurten maskaradak emateko ideia hala otu zitzaizela aitortzeko. Euretako lauri, hain zuzen. Meritu handiagoa du biharamunean bezperako asmoa aitzina eramateko adorea ukaiten segitzeak. Eguberrietako bakantzak ziren, eta lan handia eta denbora urri zuten aurretik.

Halabeharrez, bost emanaldi baizik ez dute egingo, apirilaren 8tik maiatzaren 6ra bitarteko igandeetan. Ez da gutxi. Urtero maskaradak hasten diren sasoiari, urtarrilean, beraiek osatu gabe zeukaten taldea, sakabanatutako kide askorekin harremanean jarri behar izan baitzuten. Mustrakak (entseguak) hasi orduko otsaila zen.

Berritasunik handiena horixe da: elkarte batek emango ditu maskaradak, ez herri batek. Gertatu izan da, urte batzuetan, elkarren ondoko herri txiki bik indarrak batu izana maskarada egiteko, bakarka ezin izango baitzuten. Baina beti herria izan da abiapuntu. “Zaila da, sei asteburu bakarrik ditugulako mustraketarako”, azaldu digu Agnès Aguerarayk, taldea prestatzen ari den bi irakasleetako batek, “eta hamar dantzariak Zuberoako bospasei herritakoak dira; behar da jakin Zuberoan herri bakoitzak baduela bere dantzatzeko manera, eta zaila da hain denbora gutxian dantza berdinarekin irakastea”.

Alde onik bada, hala ere: XIIIOko kide askok eman izan dituzte maskaradak beren

herrietan, eta beraz denbora laburrean talde txukuna osatzeko modua izan dute, aitzindariez den bezainbatean bederen. Geure begiz ikusi ahal izan dugu mustraka bat, eta argi geratu zaigu dantzaren aldetik behintzat ez dutela aurtengo maskaradalariek beste inoren bekaitza zertan izan, justu kontrakoa baizik.

Behar da maskarada urtero?

Gamere-Zihiga zen berez aurten maskaradak ematekoa —omenaldi gisa, han egingo dute aurtengo azken saioa—, baina heriotza tragi-

ko batengatik bertan behera utzi zuten. Hots, gertakari latza, baina konkretua, izan da maskarada kolokan egon izanaren zergatia, eta hala ere balio izan du arazo estrukturaleri buruzko eztabaida berpizteko, inoiz itzali bada.

Azkenean aurten ere maskarada izango zela artean ez genekielarik, martxo hasieran *Maskar* ikusgarria

plazaratuko zuela iragarri zuen Hebertik elkarteak, Mixel Etxekopar musikari eta sortzailearen ahotik (*Maskar* ere, azken unean, bertan behera geratu zen beste heriotza batengatik). Horren harira, eta ordurako piztuta zeuden alarmei erantzun gisan, Etxekoparrek adierazi zuen ez zela hain larria urte batez maskaradarik ez izatea Zuberoan. Hitz haiek berretsi ditu gure aurrean Gotainekoak: “Zuberoan lotzen gara, eta arrazoiz, gure bi zutabeei, pastoral eta maskaradei, baina kemeenez bezainbat beldurrez lotzen gara. Beldurrez, zutabe horietako bat aldatzen badugu hilen garela. Baina gertatu dena da frogia, ez

XIIIOko kideek uste dute urte batez maskaradarik ez bada ere, ez dela ezer gertatzen. “Iduri du gehiago dela Hegoaldekoen beldurra” adierazi dute elkarte horretako partaideek



zatekeela maskaradarik eta ez zela hori munduaren akabantza, eta alderantziz erran neza-ke, zeren sortu baita zenbait alternatiba. Badugu hutsaren beldurra, eta Oteizaren espiritua nire eginez, esan dezadan hutsak baduela indar osoa bere baitan, beste zerbaiten abiapuntua izan baitaiteke”.

XIIIOkoentzat, xantza

Etxekoparrek esan zuen maskaradak utzitako hutsunea betetzeko emanen zela *Maskar* ikusgarria, tradizioan abiapuntua duen sorkuntza berritzailea. Hutsunea bete, diogu, berdin esan genezake hutsunea baliatu. Zuberoan, tradizioekin batera, kultur sorkuntza ere bizirik dela erakusteko baliatu, hain justu. XIIIOkoak bat datoz Etxekoparren pentsamoldearekin: “Urte batez maskaradarik ez bada, ez da ezer gertatzen. Iduri du gehiago dela Hegoaldekoen beldurra. Maskarada 10-15 asteburuko gauza da, eta gero ere bada bizi bat. Bestalde, maskaradarik ez izatea xantza izan da guretzat, bestela ez baitzen onartua izanen elkarte batek hartzea herri baten lekua”.

“Onartzen dugu kritikatuak izanen garena herri bat ez baizik ikastoletako ikasle ohiak izateagatik”, diosku Xantiana Etxebestek. Baina, maskaradaren beste alderdi batzuekin gertatu bezala –dantzari gehienak gaur egun emazteak izatea, adibidez–, nork esan dezake

Aurtengo maskaradaren mustraka bat, Maulen. Kabana da zutik, gainerako kauterak aldamenean dituela.

gaur kritikatu dena bihar onartua bakarrik ez, funtsezkoa ere izango ez ote den? Bada, izan, Zuberoan dagoeneko hala uste duenik: herrietan gero eta gazte gutxiago, eta batez ere gero eta gazte euskaldun gutxiago dagoelarik, herrialde osoko jendeak bilduko dituzten elkarten bitartez lortuko da maskarada iraunaraztea. Eta bitxia da, euskaldun faltaren arazoa sekula baino agerikoago bihurtuko du aurtun, auskalo noiztik lehen aldiz, maskaradako parte hartzaile guztiak euskaldunak izateak. “Ikastolak ere Zuberoako gizartearen zati garena erakusteko balioko du honek”, diote XIIOTarrek. Arazoarekin batera, irten-bidea ere erakustea ez da hori?

Ausardia falta. Titika Rekaltek hortxe ikusten du mehatxu handiena, euskaldun kopuru urritzean ez ezik. Probokozioaren osagaia gehitu ezean, maskaradarenak egin dezake haren aburuz. Zer da, azken batean, inauteriaren funtsa, arau haustea ez bada? Mixel Etxekopar, ildo berean, maskarada fosilizazio eta turistifikazioranzko bidean ez ote den beldur da. Ikastoletako ikasle ohiak ausartu dira aurtengoz, auskalo zenbat ate irekiko duten horrela. Besteak beste, emazteen presentzia areagotuko dutelako, orain arte inon ez dituzten zenbait rol eman- ez. Beste aro bat ari da hasten, erresistentzia zaharren aurkako bidean? ■



Liburuak

KRITIKA

Konpromiso bat literaturarekin

Hemeroteka

Aritz Galarraga

LITERATURA GALEGOARI gutxi-asko tarteka begiratzeko diogunok sarri-askotan egin dugu topo Xosé Luís Méndez Ferrínekin. Dela idatziak dituen lanak ugari direlako –poesia, narratiba, saiakera–, dela belaunaldi ezberdinek aitortzen diotelako nolabaiteko aitatasuna. Pentsa, adostasuna erabatekoa izan zen 1999an, Méndez Ferrín Nobel sarirako hautagai proposatu zutenean. Eta arraro-arraro ere ez da, ez alferrik idazle hori dugu literatura galegoa modernizatara ekarri zuena, oraindik literatura ahots berezko eta indartsuenetakoa dena.

Egia da ez dela beste batzuk bezain ezaguna, ez behintzat Madriletik honako bidean. Eta motiboak bilatzen hasita, egiten dugu topo harri kozkor batekin: politika. Eta jakiten dugu gaitz larri batek jota duela idazlea, independentista eta marxista dela aldi berean –jainko potzoloa!–. Eta horregatik akaso euskaraturik dioten lanik garrantzizkoenak, *Mugaldeko jendea* honek eragin dezake gauza bat besteren gainetik: harridura. Narrazio errealista mezudunak espero dituenak ken dezala laster batean ideia burutik, oso bestelakoak baitira hemen aurkituko



Mugaldeko jendea.
Xosé Luís Méndez Ferrín.
Itzulpena: Bego Montorio.
Elkar, 1998.
200 orrialde. 15,40 euro.

dituenak. Oso bestelakoak eta haien artean ezberdinak oso.

Muga da Galizia eta Portugal bereizten dituen, Ourense hegoaldean. Eta ez da hainbeste lurralde literario baten sortzea, nola lurralde erreal baten literariotzea, diakronikoa gainera, liburuak kurrutzen baitu XIX. mendetik 36ko Gerra artekoa. Geografia baten denboran zeharreko ibilbidea, beraz, nahiz ipuinak izan ukitu fantastikoa (*Galtza urdinak*), nahiz izan onirikoa (*Adosinda izuturik*), toponimo errealak hemen irakurleak aurkituko baititu zientoka. Berdin ipuin itxuraz errealistagoak direnean ere, Ignacio Martínez de Pisón idazleak *Partes de guerra* hartan bildutako *Beste horiek* adibidez. Edo antologia berean egon litezkeen *Gomazko botak* eta *Militantearen amets urdina*. Eta denen gainean halako esperimentazio kutsu bat aurkituko dugu, denborak, pertsonak nahasteko joera, irakurketa exigente bat, irakurlea aktibo izatea eskatuko duena. Konpromiso bat literaturarekin, edozer, bertan goxo egotea baino.

Eta egia da Méndez Ferrín ez dela beste batzuk bezain ezaguna, zer dakit, Manuel Rivas bat edo, *Nunca más* antolamendukoei laguntzearen, Euskadi Irratiak egin kanpainan bildutako txekia hartzera etorri zenean *El País* egunkariko bisita-txartelak ematen zituen galegoa zen idazle ez-galego hura bezain. Beharrik ere. Arazoa geurea da, haatik, inoiz utzi behar baikenioke Madrilén derrigor geltokia duen trenaren soilik hartzeari.



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Bi doberman beltz.
The Sparteens.
Usaina/Gor.
Iraupena: 9'52'.
5 euro.

Glamourra baita etxeko zapatiletan ere

IPARRALDEKO ye-ye taldeko kideei (zakur zaharrak beraiek) nostalgikoak ote diren galdetzen badiezu, musika polita eta entzungarria egiten dutela erantzungo dizute; eta galdetuko dute ea gorra izatea moderno den. 1960ko hamarkadako klasikoak berpiztu eta Euskal Rock Erradikalaren garaiko (eta ondorengo) kanta oso ezagunak beraien guateke-iragazkitik pasatzea-gatik ezagunak egin dira. Kantak ego-kitzea beste, bideoklip edo film labu-

rrak (scopitoneak omen) egitea gustatzen zaienez, bigarren lan hau prestatzerakoan lehenengo ikus-entzunezkoetan pentsatu eta ondoren kantak birkonposatu eta moldatu dituzte beraien ukitu bereizgarriarekin. Negu Gorriak *Bi Doberman beltz*i eta euskal kantagintzarekin lotuago dauden *Bagare* eta *Eustakioren bertso batzuk* piezei bi bideo gehitu dizkiete.

www.thesparteens.com

Iban Rusiñol - The Sparteens

«Plazer ia sexuala bihurtu da niretzat koroak lantzea!»

1960ko hamarkadan bezala, singlea indarrean jarri da berriro.

Hori “hit” kontzeptuari lotuta dago. Hau da, indar guztiak produktu bakar batean kontzentratzea horren inguruan dagokion marketina guztiz zainduz. Guk negozio eta marketin horren estetika imitatzea bilatzen dugu, hau da, garaiko jarrera ekonomiko horrek duen balore estetikoak lantzea.



Taldeko kideak motorrean. Rusiñol ezkerreko lehenengoa da.

Zuengatik ez balitz, twist, ye-ye, boogie-boogie eta beste estilo batzuk ahaztuta izango genituzke. Zer dute estilo horiek?

Guretzat txantxa estetiko bat baino ez zen hasieran. Baina estilo honekin konposatzeko era zeharo desberdina ezagutu dugu. Hau da, halako estiloak lantzean ez dituzu soinuaren intentzioak lantzen, baizik eta konponketa aberatsak bilatzen. Kanta baten indarra ez dago

bateriaren edo gitarraren soinu potentean, konponketen maisutasunean baizik. Musikalki funtzionatzen du, ez soinu aldetik.

Euskal Rock Erradikalaren garaiko kanten bertsioekin egin zineten eza-gun. Zergatik aukeratu zenituzten? Garai oso gris batekoak izanik, ukitu alaiagoa emateko?

Hasieran irudikatu genuen kontzeptua izan zen ahalik eta kanta

bortitzenak aurkitu eta ahalik eta bertsioñoenak egitea, sekulako kontrastea lortzeko. Noski, gure adina kontuan hartuta, logikoa izan zen RRVko hainbat kanta aukeratzea. Oharkabea gure nerabetasun eta gaztetasuneko soinu banda bortitzena bilatzen genuen. Bortizkeria hori ez dago beti hitzetan eta musikan, hainbat kasutan irudikatzen duten testuinguru politiko gris eta gogorrean dago.

Txalogarria da ahotsen trataeren alde egiten duzuen lana.

Maribel abeslaria koroen fanatikoa da. Berak abiarazitako proiektu guztietan hamar mila ahotsen pistak gehitu ditu, gehiegi. Baina The Sparteensen kasuan guztiz justifikatuta dago. Eta gaur egun ni neu ere zeharo kontagiatu nau. Dagoeneko plazer ia sexuala da niretzat koroak lantzea! ■



Ezpalak

JON TORNER

Nikaraguako ezkutuko gerraz, Angel Amigoren dokumentalean

ANGEL AMIGO zuzendari erren-teriarrek Fronte Sandinistaren garaipenaren (1979) osteko gertaerak jaso ditu *El otro lado del espejo en la guerra secreta de Nicaragua* dokumentalean. Nikaraguako, Kubako eta Sobietar Batasun ohiko inteligentzia zerbitzuetako kideen lekukotasunak jaso ditu Amigok dokumentalean. “Gauza mordoa egin zituzten, eta lanak izan zituzten horiek asimilatzeke, biolentziak aztarna uzten baitu bai ala bai; gainera, ezin zizkioten gauza haiek inori kontatu”, dio Amigok elkarrizketatutako inteligentzia zerbitzuetako kideez. Horien artean daude, besteak beste, Lenin Cerna Nikaraguako inteligentzia zerbitzuetako burua, Fabian Escalante Kubako inteligentzia zerbitzuetako burua eta Nikolai Leonov KGBko informazio eta analisisien zuzendaria.



Baionako ‘Martxoko Etiopikoak’ jaialdia abian da



MARTXOAREN 24ra bitartean Baionako kale, denda, museo eta ikastetxeetan 200 artista baino gehiago arituko dira kultura bere ohiko esparrutik ateratzeko intentzioarekin. Les Ethiopiques festibalaren laugarren edizioa izango da aurten goa eta hainbat ekitaldi prestatu dituzte, horien artean, kontzertuak, antzerki emanaldiak, dantzaldiak, paseatze artistikoak,

olerkiak, performanceak... Egitarau oparoa izango da. Besteak beste, Kely eskultorearen eta Alberto Letamendi, Iñigo Altolagirre, Iker Valle eta Guanes Etxegarai margolarien lanak izango dira ikusgai gune desberdinetan. Mixel Etxekopar musikariak eta Itxaro Borda idazleak ere jaialdian parte hartuko dute. Egitarau osoa www.ethiopiquest.fr webgunean duzue kontsultagai.

Benito Lertxundik grabatu ditu jada *Oroimenaren oraina* diskoko kanta. Nahasketa lanak amaitu eta maiatzaren erdialdean kaleratuko du bere hamazazpi-garren lana artista oriotarrak, Elkar argitaletxearekin. Hamar abestiz osatutako diskoaren aurkezpen kontzertuak zehaztu dituzte dagoeneko. Maiatzaren 18an Bilboko Euskalduna Jauregian, maiatzaren 19an Donostiako Kursaleko auditoriumean eta ekainaren 9an Iruñeko Baluartan izango dira kontzertuak.

Victor Vasarely artistak (Hungaria, 1906-Frantzia, 1997) 1948 eta 1991 bitartean egindako 32 margolan bildu dituzte Bilboko BBKren aretoan. Irudi geometrikoen, argiaren eta koloreen arteko harremanak dute ardatz lan horiek.



Arabako Bertsozale Elkarteak Gasteizko Udalarekin zuen hitzarmenak indarrean jarraituko du, duela hilabete diru-laguntza bertan behera utziko zutela iragarri zen arren. Duela lau urtetik, 50.000 euroko hitzarmena sinatua zuten bi aldeek, bertso eskolan eta hainbat ikastetxetan ematen diren eskolak finantzatzeko. Udalaren diru-laguntza %20 murriztu den arren, elkarteak “pozik” agertu da, Arabako bertsozaleen programazioa salbatzea lortu dutelako.



● **Iñaki Irasizabal idazlea nobela beltzaz mintzatu da Berrian eta Elkar argitaletxearen webgunean, plazaratu berri duen *Orbe auziaren ingurukoak* eleberriaren harira:** «Euskaraz eta nobela beltzak idatziz gero ia ezinezkoa da politika ez aipatzea. Ez dut uste gai

bakarra denik, baina ezta ere saihestu beharreko zerbaite. Liburu honetan amu modukoa osatzeko erabili dut. (...) Iruditzen zait genero beltzeko eleberriek elkarren antza izaten dutela, eta hori muga bat dela idazterakoan. (...) Plagioa oso ona eta aberasgarria da, harrapatzen ez bazaituzte. Ideia on bat ematen badizu eta testuak hobetzeko balio baldin badu... Nik ez dut kontzientzia txarrik, plagio bat egiteagatik».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarak

MIKEL ASURMENDI

Azken komunioa

Xabier Lete zuzenean / Azken kontzertua.

Erreteria 1999-IX-25 (CD bikoitza).

Diskoetxea: A&M Kultur Promotora.

Musikariak: Xabier Lete, Pascal Gaigne, Txema Carces, Pello Ramirez, Joxan Goikoetxea, Karlos Gimenez.

XABIER LETEREN *Azken kontzertua* bere azkeneko komunio handia izan zelakoan nago. Erreterian gauzatu, bi partetan emana, bi CDtan jasoa heldu zaigu. Hari baten bila ibili naiz komunio gogoangarri haren oihartzunak zabaldu eta partekatzeke. Aitortu dezadan hasteko eta behin: musikan neofito naiz, beraz, nire hari musikala ahul samarra dukezu.

Goraipatu ditzadan hasmentan bost musikariak, euren soken eta teklen doinu trebe-ausart-herabeak goratu ere. Bostekoaren musika-noten uztarketak aho zabalik uzten nau. Bat-bederaren emana apartekoa begitandu zait, eta guztiena, batera, sotiltasunaren emaria. Hainbesteraino liluratu nau emaitzak, ezen, kantuak estudioan moldatuak ote ziren pentsarazi zidala une batez. Hots, musikariek berek pasarte zenbait berriz ere joak zirela eta egungo teknikarien eskutik kantak berrosatuak ote ziren. Koitadu halakoa! Ez andereak, ez jaunak, kontzertuan jotako notak entzun ziren legez ditugu entzungarri. Pascal Gaigneren notak magistralak dira, Joxan Goikoetxearen eta Pello Ramirezaren notetan ezтики kulunkatzen zara aldi berean. Txema Carcesen baxua presente dago betiere, nabarmendu barik baina.

Karlos Gimenezaren nota(k) ezin nabarmendu gabe aipatu, orde: bikaina. Xabier Leteren inoizko grabazioa duzu *Azkeneko*, Leteren hitzak eta Gimenezaren musika

moldaketak –hainbat kantaren konposaketa, barne– berezko nortasunaz uztartu dituen. Bi CDtan, emanaldia 11 + 10 musika piezaz gorpuztua dago, hitzak eta doinuak mihiseta harilkatuak geratu dira behin betiko; autorearen 20 predikuz edo aitzinsolasez apaindua. Xabier Letek ez zuen, bizirik zegoela, *Azkeneko* hau argitara eman nahi. Emaizta herioren ere bada modu batez, ezin heriotza eta bizitza bereizi poeta honenganako gure irudimenean.

Pertsonok barne eta kanpo bizipenek osatuta gaude, eta kantuotan halaxe ageri ere oiartzuarraren izaera: *Biografia*, *Malkoak euri balira*, *Agian*, *Zuk badiozu*, *Jardin bat zuretzat*, *Xalbadorren heriotzean*, *Ni naiz*, *Nafarroa*, *arragoa...* eta *Lizardi!* kantetan dautza bere baitatik baitarako hitzak. Bere barnetik haragoko oihartzunak berriz, Habana, Txile, Katalunia, Paris, Pio Baroja, George Brassens eta Jacques Brelengan aurkitu dituzu.

Pentsa dezakezu betiko kantak daudela bilduman. Eta halaxe dituzu. Alabaina, emaria iturri zaharretik heldu den ur berritua duzu. Xabier Leteren izatearen elikagai zaharrak, solasek eta kantez utzitako irudi hilezinak: gorputz eta zuhaitz baten tristura eta pozaren abararak. Oiartzungo poeta-kantariak azkeneko arnasekin ordaindu nahi izan zizkigun antzinako zorrak.



Laudio

Liburu azoka martxoaren 23tik apirilaren 1era, Lamuza plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA


- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Gatazka, borroka. Arku, geziak eta tragazak jautikitzeko erabiltzen dena.
2. Belarriaren hantura. Nongo atzizkia. 3. Pirataren edari. Elizetako kanpandorrean dagoen metalezko instrumentu. 4. Opari. Dimako auzoa. 5. Silizioaren sinboloa. Garbitu, xahutu. Geun, gandu. 6. Surfa praktikatzeko xafla-modukoa. Eredu, jarraibide. 7. Eliz kantari (Iparraldean). Kafea. 8. Motorrik gabeko ibilgailu. Objektuen osagai den gai bakoitza (pluralean).

Goitik behera:

1. **Argazkian**. 2. Idealtzat baina ezin gauzatzukotzat jotzen den ideia. 3. Indar-unitatea. Iheskor. 4. Utikan! Lirain, sotil. 5. Ikaraz. 6. Usadioa. Tulioaren sinboloa. 7. Mendealdean, zen. Hitz bat ordezkatzeko erabiltzen den hitza. 8. Argazki, erretratu. 9. Bukaera. 10. Atomo kargatua. Gar. 11. Azeri. 12. Betea. 13. Apal, arroa ez dena. 14. Nork bere iritzia gogor eustea. 15. Egokiak.

Lazkao Txiki Senegalen

Duela gutxi, Bordeleko denda batean, liburu batek eman zidan atentzioa: *Humour noir* zuen izenburua... egilea beltza zelako! Mouss Diouf komiko senegaldarra. Erosi, irakurtzen hasi eta 55. orrian txiste hau aurkitu nuen:

– Jendarmek Boli Kostako auto gidari bat gerarazi dute:
– Aizu! Ez al duzu semaforo gorria ikusi edo?
– Bai, noski! Semaforo gorria bai, baina zuek ez!

Berehala pentsatu nuen: “Baina istorio hau? Afrikarra? Hau Lazkao Txikirena da eta!”. Bitxia eta harrigarria da istorio

berbera izatea Lazkao Txikiz kontatzen zena eta Senegalgo umoregile batek bildutakoa.

Liburuko txiste batzuk eza-gunak dira, baina zein desberdin, beltz batek kontatuta!

– Zer dira beltz batek dituen hiru gauza zuriak? Begiak, hortzak... eta nagusia!

– Zer da beltz masokista bat? Lana bizitzeko egiten duena.

Sekulako aldea baitago umorea talde barrutik egitetik, talde baten bizkar egitera! Atsotitz afrikar batek dioen bezala: “Ibaia zeharkatu... krokodiloa iraindu aurretik!”.

Sudokuak

Erraza

9			6		2	4		
	6	5	3	4		1		7
			5	8				2
4		6		3	7	9		8
7	3						4	1
1	2	4	5		3			6
8				1	5			
6	7		2	3	8	5		
		9	8		4			3

Zaila

				5				8
4				3	1			
	7	2	6		9	1		
	9		1			6		
		1			2		4	
		7	5		8	9	3	
			3	1				7
6				2				

Soluzioak

3	1	7	4	6	8	9	5	2
5	2	8	6	1	7	4	3	9
4	9	2	3	5	1	7	8	6
6	1	5	2	4	3	8	7	9
7	3	8	9	2	5	1	6	4
8	4	1	7	3	6	5	2	9
2	6	3	5	8	4	9	1	7
9	8	1	6	7	2	4	3	5

Erraza

Zaila

5	1	7	8	1	5	6	4	3	9
8	5	9	3	1	6	4	2	7	
1	2	7	5	4	8	9	3	6	
7	6	1	8	9	2	5	4	3	
5	9	4	1	7	3	6	8	2	
3	7	2	6	8	9	1	5	4	
4	8	7	3	1	2	6	9		
9	1	6	2	5	4	3	7	8	

Ezker-eskuin: 1. Gudu, Uztai. 2. Oñasa, Ko. 3. Ron, Kanpau. 4. Opatu. 5. Si, Aratu. 6. Lauso. 7. Taula, Erakusmen. 8. Atoji, Matetalek. 9. Atoji, Matetalek. 10. Atoji, Matetalek. 11. Atoji, Matetalek. 12. Atoji, Matetalek. 13. Atoji, Matetalek. 14. Atoji, Matetalek. 15. Atoji, Matetalek.



aldizkaria.elhuyar.org



Ezagutu *Elhuyar* aldizkariaren webgune berria

- ▣ Paperean dagoen edukia formatu digitalean.
- ▣ Edizio digitala deskargatzeko aukera.
- ▣ Eduki osagarria irakurtzeko atala: iturriak, bibliografia, bideoak, gaiarekin lotutako albisteak.
- ▣ Edukiei buruzko iritziak emateko bidea.
- ▣ Harpidetzaren datuak kudeatzeko gunea.

Irakurri *Elhuyar* aldizkaria zure tabletan. **Harpidetzu eta parte hartu zozketan**

Martxoaren 15etik apirilaren 15era bitartean *Elhuyar Zientzia eta Teknologia* aldizkariko harpidedun egiten bazara, tableta baten zozketan sartuko zara.

Harpidetza telefonoz egiteko, hots egin **+34 943 36 30 40** zenbakira.

Harpidetza Internet bidez egiteko, sartu **aldizkaria.elhuyar.org** webgunean edo idatzi mezu bat **harpidetza@elhuyar.com** helbidera.



zientziaren
ELHUYAR
komunikazioa

Osasuna

JABIER AGIRRE

Biriketako hauspoak ez badu aski indarrik

ZER OTE DA BGBK edo biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa? Aireari biriketara sartzen eta ondoren kanpora ateratzen uzten ez dion etengabeko buxadura edo obstrukzioari esaten diote medikuek horrela. Arnasa hartzeko traba edo zailtasun kronikoa besterik ez, edonork ulertzeko moduan esanda. 40 urtetik 70era bitarteko gizonezkoen %9k gutxi gorabehera jasaten duten gaitz horrek ondorio ekonomiko larriak ditu, urtean hamar milioi kontsulta eragiten baititu osasun-zentroetan, 1.400.000 egonaldi ospitaletan, eta 2.100 milioi eurotik gorako kostua.

Zerk sortzen du BGBK?

Bronkitis kronikoak eta enfisemek, batik bat. Bronkitisa kronikotzat jotzen da eztula egiterakoan mukia botatzen denean, urtean hiru hilabetez gutxienez, jarraian ez badira ere, eta ondorengo bi urtetan edo gehiagotan. Enfisema, berriz, airea biriketan atxikita geratzearen ondorioa da, biriketako albeoloen paretak suntsitzeraino. Eta zergatik sortzen dira bi gaitz horiek, bronkitisa eta enfisema alegia? Erretzeagatik, batez ere, eta pertsona batek erretzen daraman denborak eta erretako tabako-kopuruak harreman zuzena dute gaitzaren agerpenarekin. Badira beste eragile batzuk ere (ingurugiroko keak eta hautsak, behin eta berriz errepikatzen diren arnas infekzioak) edo baita joera hereditarioa ere, baina tabakoa da BGBK agertzearen errudun nagusia.

Zeintzuk dira gaitzaren seinaleak?


Esan bezala, gaitza 50 urtetik aurrera agertzen da normalean, eta aurreneko susmoa mukia –batez ere goizetan jaikitzerakoan– kanporatzen duen etengabeko eztul zakarra da. Berehala azalduko da itomen-sentsazioa; hasieran, eskailera igoztean edo ibiltzerakoan, geroago atsedenean ere bai. Arnasterakoan esfortzu handiagoa egin behar da, saiheztu-hezurren arteko espazioak hondoratu egiten dira, eta baita klavikula gainak ere, eta besoak aulki baten gainean bermatu beharra dauzka gaixoak arnasa errazago hartzeko. Luzarora zianosia agertuko da: azalak kolore urdin-morea hartzen du, ezpain, belarri eta hatz-puntetan batez ere.

Larria al da gaitza?

Gaitza nahiko larritzat har dezakegu, kronikoa eta progresiboa delako –zertxobait arintzea ere gerta daitekeen arren–, eta azkenean arnasa hartzeko ezintasuna dakarkiolako gaixoari. Oso usua da arnas infekzio baten ondorioz –hotzeria edo gripea, esaterako– egoerak okerrera egitea, edota pneumonia batekin konplikatzeko. Bihotzak ere normalean baino lan gehiago egin behar du biriketara odola iritsarazteko. Adituen kalkulua eta estimazioen arabera, urte gutxi barru hirugarren heriotza-arrazoia izango da biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa, gaixotasun kardiobaskularren eta minbiziaren atzetik.

Nola prebenitu?

Garrantzitsuena ez erretzea da. Erretzaileek eztula eta mukia batera dituztenean, beraz, bere medikuari kontsultatu beharko diote, honek tratamendu egokia jar diezaien, erretzailearen ohiko eztul gogaikarria besterik ez dela pentsatu ordez. Gaixotasunak aurrera egin ez dezan, erretzeari utzi behar zaio, noski, eta konplikazioei aurre hartzeko gripearen eta pneumoniaren kontra txertatzea da, gaur gaurkoz, neurririk egokiena. Kirurgia ere kontuan hartu beharreko posibilitatea izan daiteke BGBKaren kasu larrietan, enfisemak eragindako itomen-sentsazioak bestelako tratamenduekin hobera egiten ez duenean, batez ere.



COPD.ABOUT.COM



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Etxerako ekoizten duen baserritar txikia naiz, eta kalitatea ikaragarri estimatzen dudanez, saiatzen naiz dena ekologikoan egiten, Oraindik denbora gutxi daramat eta zalantza askorekin egiten dut topo. Horiekin lotuta, hiru galdera egingo dizkizut:

Bi urte inguruko sagar landareak ditut aurrez pinudia izandako tokian sartuta. Lurra nekatu samar dagoela deritzot, ez baitira asko hazten. Satsik ez dudanez, zein mineral klase bota niezaioke?

Adarrak kimatzea txarra dela aditua dizut; hala ere, adarrak okertzea komenigarria da?

Gaixoa sartuta daukan gaztaina landareak hesoletarako iraupen aldetik gorabeherarik badu?

Xabier Herrarte (Aramaio).

Kaixo Xabier. Pinudiak lurra erabat azidotuta uzten du eta horri buelta eman behar zaiola iruditzen zait. Horretarako satsa baino hobea da karea: pHa bere onera ekarriko du eta lurtean bertan kateatuta dauden elikagaiak askatuko dira.

Ahal izanez gero sagarrondoei adarrak ez kimatu. Okertzea naturala da, eta fruta emateko teknika egokia.

Gaitzak jotako gaztainondoaren egurrak ez du zertan makalagoa izan behar hesoletarako. Zuhaitza eraitsitakoan materiala zein egoeratan dagoen ikusiko duzu. Iruditua –ihartu, bigundu, harrotu eta beratu antzekoa– edo alferrik galdutako zatiren bat badu gupidarik gabe kendu.



Umetako kontuak

ASIAKO EKIALDEKO MUTURREAN ginkgoa (*Ginkgo biloba*) zuhaitza gurtzagai dute. Ez da harritzekoa: gaztetasunari eusten urgazle da! Gurean ere baditugu landare gurtuak: elorri zuria (*Crataegus* sp.), hagina (*Taxus baccata*), lizarra (*Fraxinus excelsior*)... Gure espiritueltasuna eta gorputza osatu duten landareak dira, gogo eta gose guztiak ase dizkigutenak. Bete gabe? Asebete gabe? Asetzea ere ez da gutxi...

Gure gogoak betetzeak, baina, bestelakoak ere badakartza. Gure espezieak soziala izan behar zuela erabaki zuenetik badugu hurkoari zer zor. Hurkoa izateak betebeharrak sortzen ditu, eta lasaitasuna eta babesa eskaintzen dizkizu trukean. Bake hori jendeak ez ezik sekta batek bermatzen duenean, eta gurean bezala sotanen beltza baino beltzagoa denean zer esanik ez, trukea garestia da. Ustezko anparo horrek onak eta txarrak, adiskideak eta etsaiak bereiztera behartzen gaitu. Batzuk gurtu eta beste batzuk zanpatu. Lagunak bezala landareak.

Gure ume garaietan, ez dakit zein ospakizun aitzakia, sektako herriko nagusi erretorea paliopean kaleetan gora eta behera paseatzera ateratzeko ohitura bazen. Horretarako diktadore haren hankape finetarako galtzadako harriak gogortxo nonbait eta kale guztiak ihiz estaltzen ziren. Moztu berrian zabalduko ihi berde beltz hark arreta pizten zidan, kaleak inoizko dotoreenak jartzen baitzituen. Gure herriko ihiak zanpatuz palioaren segizioan kanpokoei, palmondoari (*Phoenix canariensis*) eta erramuari (*Laurus nobilis*), gorazarre egiten zitzairen.

Ni zanpatuekin bizi naiz. Gure etxeak Imindosberri izena du. Imindos ihi mendi hotzetik dator. Ihiak ura erakusten du. Itsasoko ganduak eta errioko terralak ia etengabekoak eta buztina nagusi den lurra izaki, egutera gozoan egonagatik, ihia (*Juncus* sp.) bapo bizi den tokia da. Baita gerori ere.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: Alkartasuna Kooperatiba elkarte



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 26

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com <http://www.alkartasunausurbil.com/>



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Gin tonic: malariaren eta eskorbutoareen aurkako edabea

GENEVA (SUITZA), 1783. Johann Jacob Schweppe bitxigile alemaniarrek botilaratutako urari anhidrido karbonikoa eransteko sistema asmatu zuen; edari gaseztatua, ur tonikoa, lortu zuen horrela. Produktuaren arrakasta ikusita, bere izena zuen konpainia sortu zuen Londresen, hiri hartan gasdun ura eta frutazko sodak modan zeudela jakinda.

XIX. mendearen erdialdean, ziropa sendagarrien eskaerak, eta ondorioz ekoizpenak, igoera izugarria izan zuten. Hala, J. Schweppe & Co. enpresak merkatu segmentu horretan sartzeara erabaki zuen. Tonikari kinina erantsita, edari freskagarria eta malaria zein beste hainbat gaitzen aurkako sendagaia produktu berean batzea lortu zuten.

Garai horretan Britainiar Inperioa zabala zen, eta India zuen gune nagusietakoa. Ingurune hotzagoetara ohituta, tropa britainiarrentzat malaria mehatxu handia zen Indiako berotan. Hortaz, metropolitik edari arrakastatsua eraman zuten, gaitzaren aurkako borrokan arma izan zedin.

Eskorbutoari ere aurre egin behar izaten zieten kolonietako soldaduek, eta gaitz hura C bitaminaren gabeziak eragiten duela jakinda, fruta zitrikoak egokiak ziren prebentziorako. Hala, tonikari lima



Ginak, tonikak eta zitriko ukituak Indian egin zuten bat lehenengoz, XIX. mendean.

edo limoia erantsita, sendagaiaren propietateak areagotzen ziren. Baina tonikaren mikatza –garai hartan gaur baino askoz kinina gehiago zuen eta zaporean antzematen zen– eta limaren garratza kontuan hartuta, hura edaterik ez zegoen. Beste osagai bat behar zen edabea edangarriago egiteko, eta ofizial britainiar bati zapore hura goxatzeko osagai egokiena gina zela bururatu zitzaion.

Nederlandaraz *jenever* esaten zaion edari alkoholikoa Herbehereetan asmatu

zuten, XVII. mendearen erdialdean –ustez, Franciscus Sylvius mediku eta anatomistak destilatu zuen lehenengoz–. Baina gina Ingalaterran zabaldu zen nagusiki. Garagardoa egiteko erabiltzen ez zen garagar soberakina destilatzen hasi ziren, eta egiten hain erraza zen edari merkea bere egin zuten metropoliko nahiz kolonietako britainiarrek.

Horrenbestez, ur tonikoa, lima eta gina batuta, gin&tonic izeneko koktel ezaguna sortu zuten. Oraindik ere bere propietateak estimatuak dira digestio-lagungarri bikaina delako. Baina egungo gin tonicak ez du ia kininarik, eta C bitamina maila igotzeko tratamendurik gomendagarriena ere ez da.



Arrastoak

Ilargia ere Titanic hondoratzearen errudun

JORGE GONZALEZ



MENDEURRENA beteko da datorren hilean Titanic hondoratu zela eta, efemeridea aitzakia hartuta, gertakizunari buruzko azterketa eta hipotesiak ugaltzen ari dira. Horietako baten arabera, 1912ko urtarrilaren 4an, ilargiaren fenomeno batek eraginda, marea biziak

eta ezohiko itsasgorak izan ziren Atlantikoan. Ondorioz, hurrengo udaberrian Titanicek zeharkatuko uretan ohi baino iceberg gehiago zeudela eta, beraz, izotz blokeak jotzeko aukera handiagoa zegoela adierazi dute Texaseko Unibertsitateko adituek.

Espainiako lan erreforma

Eskubiderik gabe, lanpostuak merke

Espainiako Gobernuak onartu berri duen lan erreformak ondorio ikaragarriak ekarriko dizkio langileriari. Euskal Herrian jada hasi dira kaleratzeak enpresetan, eta lan baldintzak kaskartzeko patronalaren presioa nabarmena da. Mobilizazioa beste tresnarik ez zaio geratzen herritarrari, eta sindikatuek martxoaren 29an deitutako greba orokorra gorritz jarri du askok egutegian.

URKO APAOLAZA



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Lan erreformak emakumeak gogor kolpatuko ditu, malgutasuna enpresariaren mesederako baita eta ez kontziliaziorako.

GUEÑESKO KONECTA telemarketing enpresan 260 lagunek egiten dute lan, gehienak Iberdrolak azpi-kontrataturik. Martxoaren 1ean hamaika emakume banan-banan pasarazi zituzten bulegotik, eta banan-banan esan zieten despedi-

tuak zeudela. Arrazoiak? Azken bi hilabeteetan lanaldiaren %20 baino gehiago bajan igaro dutela. Esku batean kaleratze gutuna eta bestean PPk onartutako lan erreforma, tamalez ohikoa bihurtuko den irudia da hori.

Langileen Estatutuaren 52. artikulua kontratua amaitutzat jotzeko arrazoi objektiboak zehazten ditu eta horien artean da aldian aldiko laneko faltak lanaldiaren %20 baino gehiago izatea, nahiz eta justifikaturik egon —medikuaren agiriarekin,

adibidez—. Hori lehen ere bazioen arauak, baina PPK dekretu bidez artikulatu horretako esaldi oso bat kendu du orain: “Betiere lantaldearen absentismo indizeak %2,5 gainditzeko duenean”. Hau da, jadanik berdin du zure bajak ez badio enpresariari kalterik sortzen, ondo sendatu gabeko katarro bat nahikoa izan daiteke gutxieneko indemnizazio batekin kaleratua izateko. Konectako hamaika langileak urteko 20 eguneko kalte-ordainarekin bota dituzte.

Erreforma berriaren letra txikia titular handiena bezain garrantzitsua da, ezabatu edo gehituko esaldi bakoitza aitzakia ederra izan daiteke kaleratzea erraztu edo merkatzeko. Beste adibide bat: Konectako beste 7 langileri Bartzelonara aldatzeko galdegin diete, onartu ezean kalera doaz, hauek ere urteko 20 eguneko kalte-ordainarekin. LABek salatu du “ezkutuko kaleratzeak” direla horiek eta bi delegatu gose greban daude Gueñesko kultur etxean lerro hauek idazteko unean.

Espainiako Gobernuak aurrera eramane dituen bederatzi lan erreformetan bortitzena da honakoa. Langileen Estatutuaren 96 artikuluetatik 28 aldatzen ditu, eta kasu

gehienetan aldaketa nabarmenak dira gainera. Haien bidez, enpresariak langileari soldata jaitsi ahal izango dio, kobratu gabe lan gehiago egitera behartu dezake, eta soldata prekarioekin langileak kontratatu ditzake. Erreformak egoera oso ezberdinetan dauden jendea eragingo die, berdin administrazio publikoan ari den finkoari, nola praktikatako kontratuarekin ari den diseinatzaile gazteari edo urte askotako antzinasuna duen eraikuntzako langileari. Baina batez ere, kaleratzea inoiz baino merkeagoa izango da: “Enpresa ugari erreformaren zain egon dira kaleratze masiboak egiteko”, Esteban Ceca abokatu ezagunaren hitzak dira, *Deia* egunkariari esanak. Euskal Herrian jada hasi dira lehen ondorioak nabaritzen.

Kaleratzeak hasi dira enpresetan

PPren dekretua publikatu zela hila-bete eta erdi eskas igaro den arren, hainbat enpresatan jadanik hasi dira lan erreforma berriak ematen dituen tresnak aprobetxatzen eta euren lan taldeak murriztu, kaleratzeak egin edo langileen baldintzak aldatzen. Segidan adibide batzuk:

Caja Navarrak eta Espainiako Estatuko beste lau aurrezki kutxek osatutako Banca Cívica arazo handiak ditu defizitari aurre egiteko. Legea betetzeko 2.000 milioi euro lortu behar ditu etsi-etsian; besteak beste, pertsonaleko gastuetan 150 milioi euro murriztu nahi ditu eta lantaldearen portzentaje bat behin-behinean kalera bota nahi du txandaketa sistema bat erabiliz. Erreforma berriak kontratuak suspenditzeko aukera ematen dio enpresari administrazioaren baimenik izan gabe. Horrez gain soldata jaistea ere aurreikusten du finantza erakundeak. Egundik 1.334 langile ari dira CANek Euskal Herrian dituen bulegoetan, horien %20ri eragin diezaiokete murrizketa neurriak.

Gallardo Taldearen Corrugados Azpeitia lantegiko beste 60 langile kategorian aurki daitezke ekainetik aurrera. Enpresak lehendik ere 100 langile bota ditu eta despido gehiago ez izateko akordio batera iritsi zen Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, kreditu eta hobarien bidez. Baina lan erreformak ekarritako aldaketa nagusietako batek ateak ireki dio despidoari: 51. artikulua dio kaleratze kolektiboak egin ahal izango direla enpresak hiru hiruhilekotan diru-sarrerak gutxitzen baditu; krisiarekin enpresa gehienak daude egoera horretan. Gallardo Taldeak 2010 eta 2011 urteetan galerak izan ditu eta erreforma berria eskuan ez du inolako arazorik izango, behin ekainean EEEda (Enplegua Erregulatzeko Espediente) bukatzen zaizenean, langileak kalera botatzeko.

Erreforma berriak kaleratzea merkatzen du, baina are larriagoa dena, langilea kaleratzeko aitzakia gehiago eskaintzen dizkio enpresariari.



ARGAZKI PRESS

m29
GREBA OROKORRA

LAN ERREFORMARI ETA MURRIZKETEI EZ!
ZERBITZU PUBLIKOEN ALDE



Lan eskubideen kontrako eraso basatia

Rajoyren Gobernuak onartutako lan erreforma lan eskubideen kontrako eraso basati baten parte da, eta inolako sakrifizioz ezartzen ez zaien enpresarien zerbitzura dago. Eraso horrek langabezia eta pobrezia handituko ditu eta negoziazio kolektiboari berezko izaera kenduko dio, sindikatuak ahulduz. Alderdi nabarmenenak hauek dira:

- Kaleratzeak erraztu eta merkatzen ditu, bidezko despidoaren arrazoi ekonomikoak zabalduz –salmentetan murrizketa izatea azken hiru hiruhilekotan. Modu horretan, urteko 20 egun eta gehienez hamabi hilabeteko muga duten indemnizazioak ugarituko dira.
- Kaleratze bidegabeen indemnizazioa gutxiago izango da: urteko 45 egun eta 42 hilabeteko mugatik, 33 egun eta 24 hilabeteko mugara igarotzen da.
- Tramitazio soldatarik jada ez da izango. Hau da, kaleratua izan eta bidegabeko kaleratzea dela dioen sententzia jakinarazten den arte kobratzen dena.
- Kaleratze kolektiboentzako (EEEak) beharrezkoa zen administrazioaren baimena ezabatu egiten du erreforma berriak.
- Sektore publikoan kaleratze objektiboak egin ahal izango dira: sektore horretako parte diren erakun-

de, elkarte eta entitateek lan harremanak bertan behera utz ditzakete arrazoi ekonomikoak, teknikoak, produktiboak edo antolakuntzari dagozkionak argudiatzen badituzte.

Erasoak enpresaren antolakuntzari ere eragiten dio: zereginei eta lekuari dagokionez mugikortasuna errazten du eta lan baldintza nabarmen aldatzen ditu.

- Erreforma berriak kontratu prekarioagoak sortzen ditu eta egun erdiko lanaldia duenak ordu estrak sartzea baimentzen du, lehen guztiz debekatuta zegoen hori.
- Enpresariak hitzarmen kolektiboak utz ditzakete eta enpresa hitzarmenek lehentasuna izango dute.
- Erreforma honek atek ireki dizkio soldata jaitsierra orokorrari. Enpresariak, lehiakortasun eta produktibitate arrazoiak medio, lan baldintzak alda ditzake eta ondorioz soldata jaitsi. Nahikoa izango da enpresariak 15 eguneko aurrerapenarekin abisatzea. Langileak aldagetari uko egiten badio, urteko 20 eguneko indemnizazioarekin despeditu ahalko dute.

Daniel Udalaiz

Laudioko JEZ Sistemas Ferroviarios lantegiko enpresa batzordeari (ELA, LAB eta Sartu) mehatxu egin dio zuzendaritzak, fabrikako 250 langileentzako murrizketak onartzen ez baditu. Bi aukera eman dizkie sindikatuak: hogei lagun kaleratu eta modu horretan soldatetan %5 aurreztu, edo soldata %2 jaitsi langile guztiei. JEZeko langileak 2010etik daude behin-behineko EEE batean eta enpresak galera handiak izan ditu epe horretan. Hortaz,

bere esku legoke kaleratzeekin hasi ala ez.

Foruko Rinder automobilgintza enpresako langileek salatu dute urte bukaerarako enpresak atek ixteko intentzioa duela eta kalean gera daitetzekeela. 84 langile dira orotara, asteartetik ostegunera ari dira lanean eta soldata jaitsierra nabarmen izan dute. Enpresa batzordearen aburuz lan karga ez da jaitsi, baina “akzionistek planta hiltzen utzi dute”. Oraingoz langile guztientzako urtebeteko EEE berri bat

egitea eskaini du zuzendaritzak eta langileek hori onartu ezean 30 lagun kalera joango lirake; erreforma berriarekin enpresak ez luke inolako eragozpenik izango hori egiteko.

Joan den astean Cementos Portland-ek Euskal Herrian dituen bi plantetako bat ixtea pentsatzen ari dela iragarri zuen. Olatzagutian 160 lagun inguru ari dira lanean eta Lemoan beste 123. Azkeneko honetan ELA eta LAB sindikatuak bul-tzatuta hainbat lanuzte burutu dituzte langileek azken asteetan; enpresak



grebaorokorra
m29
 demokrazia eta justizia soziala
EUSKAL HERRIAK ERABAKI DU:
INPOSAKETARIK EZ! **LAB**



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Bi irudi oso ezberdin: ezkerrean Konfektako langileak euren eskubideak aldarrikatzen; eskuinean EAEko patronaleko ordezkariak, enpresarien interesak defendatzen.

soldata jaitsiera, malgutasun gehiago eta langileak lekuz aldatzea proposatu die sindikatuari, baina hauen ezezkoaren aurrean 161 eguneko EEEa ezarri nahi dio lantalde osoari. Espedientea urtarilean aurkeztu zion Portlandek Eusko Jaurlaritzari honek onartu zezan, baina bitarte horretan Espainiako Gobernuak lan erreforma egin du eta orain Portlandek ez du tramite hori pasa behar; EEEa martxoan honetan aplikatuko duela esan du.

Langilearen Estatutuaren 47. artikulua ezinbesteko jotzen zuen administrazioaren baimena izatea EEE bat aurrera eramateko; pasarte hori guztia ezabatu egin du PPren Gobernuak erreformarekin. Askoren ustez erregulazio espedienteak perretxikoak bezala ugalduko dira, eta hasi dira lehen sintomak: Nafarroan lan erreforma onartu ondoren go lehen hiru astetan 79 EEE jarri dira martxan enpresetan –ELAk jakinarazi duenez– eta joan den urteko otsailean 51 baino ez ziren izan.

Hitzarmen kolektiboetan, patronala luzamendutan

Demagun Galdakaoko taberna bateko zerbitzaria zarela, eta normalean denez, zure jabearekin ez duzula inolako enpresa hitzarmenik adostuta. Zure lan baldintzak eta soldata Bizkaiko ostalaritza sektoreko hitzarmenak zehazten ditu (1209 euro gehi estrak). Baina demagun egun batean nagusiak esaten dizula taberna ez doala ondo eta egoera berrira “egokitu” beharko duzula. Okerrenean jarrita, lanbide arteko

gutxieneko soldata (641 euro) kobratzen amai zenezake.

Horrelako egoerak egia bihurtu daitezke. Izan ere, hitzarmen kolektibotik ateratzeko aukera handiagoak ematen dizkio enpresariari lan erreforma berriak, nahikoa da “zailtasunak” dituela esatea. Horrek, milaka langile babesik gabe utziko ditu.

Esku batean lan erreforma, eta bestean kaleratze gutuna. Tamalez ohikoa bihurtuko da irudi hori

Erreformak hitzarmen kolektiboen negoziazio eremuan deabrukeria galanta egiten du. Lehen lurraldeko hitzarmena izaten zen langile gutxienezko aterkia, sindikatuen presioz gutxieneko baldintza duin batzuk ezartzen zituena; bada orain, enpresa hitzarmena lehenetsiko da, honek langilearen baldintzak okerragotzen baditu ere. Zentzu horretan, ez da harritzekoa Gipuzkoako enpresarien elkarteak, Adegik, *Hitzarmena* izeneko zerbitzua sortu izana berriki, bere intereseko enpresa hitzarmenak sustatzeko helburuz. Bestalde, ez enpresako ez lurraldeko hitzarmen akordiorik ez balego, Estatukoa aplikatuko litzaioke langileari, normalean Euskal Herrikoak baino baldintza kaskarragoak izan ohi dituen. Zer gehiago behar dute Adegik, SEAk eta gisakoek negoziazio mahaitik altxatzeko?

Momentu honetan hitzarmen kolektiboa berriro gabe dute EAEko

352.000 langilek –Nafarroako datu-rik ez da inon publikatu– eta haien lan baldintzak hobetzea edo okertzea patronalaren borondatearen arabera dago. Patronalak balantza bere alde du, badaki nahikoa izango duela negoziazioa bi urtez blokatzea –arauak muga hori jartzen du– Estatuko oinarritzko legedi ahula *de facto* aplikatzeko. Horixe egiten ari da metalgintzan, Euskal Herriko sektorerik garrantzitsuenen –150.000 langile ari dira Hego Euskal Herrian–, luzamendutan ibili.

Nafarroan enpresariak diote eszenatokia guztiz aldatu dela erreformarekin, eta metalgintzan orain arte adostutako puntuei “aldaketak” egin behar zaizkiela; ondorioz elkarriketak bertan behera geratu dira momentuz. Bizkaian ELAk salatu du metalgintzako FVEM patronala Madrilgo erreforma erabiltzen ari dela hitzarmen “murriztu eta eduki gabeko bat” sinatzera behartzeko. Araban soldata izoztea izan da enpresarien proposamena eta Gipuzkoan Adegik denbora eskatu die sindikatuari erreformaren edukiak aztertze-ko. LABk Gipuzkoako eta Bizkaiko metalgintzako hitzarmena “blindatzeko” klausula bat aurkeztu du, baina enpresariak egungo araudiarekin kontraesan dagoela esan dute. Berriz ere irudi bera: guraizeak esku batean, lan erreforma berria bestean.

Emakumeak eta gazteak, berriz ere biktimak

Erreforma dekretu bidez egin bada ere, nolabaiteko babes irudikatu nahi izan dute Espainiako Kongre-

INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS



LANDER FDZ. ARROIAE / ARGAZKI PRESS



Hitzarmen kolektiboaren eredia hankaz gora jartzen du lan erreformak eta Euskal Herrian metalgintzan hasi dira zailtasunak nabaritzen negoziazioetan. Goian, sindikatuen bilkura eta manifestazioak hitzarmen duina eskatzeko.

suan bozkaturuz. PP, CIU, UPN eta Foro Asturiasen botoekin atera da aurrera. Bozketa martxoaren 8an egin zen, emakumearen egunean. Paradoxikoki, emakumeak dira erreformak gehien kolpatuko dituen jendarte taldea.

Lanaldi partzialean ari direnen artean emakumeak askoz gehiago dira eta 12. artikuluan egindako moldaketaren ondorioz ordu estrak egin ahal izango dituzte hemendik aurrera. Horrek kontziliaziorako zailtasun ugari ekarriko duela aurreikusi dute, malgutasuna enpresarioaren mesederako soilik izango delako. Bestalde, berdintasunerako neurri gehienak hitzarmen kolektiboetan jasotzen dira eta horiek ahultzearekin batera, emakumeek irabazitako eskubide ugari ezerezean gera litezke. Egoera erraieraraino da gogorra, kontuan izaten bada emakumeek egun lan arloan jasaten duten diskriminazioa: batez beste gizonezkoek baino 7.000 euro

inguru gutxiago kobratzen dute Hego Euskal Herrian.

Gazteak ere lazoan harrapatu ditu erreformak. Formaziorako kontratuei baldintza eta muga ugari kendu dizkie Gobernuak eta praktikan *zabor kontratuak*: enpresa batek nahi adina formazio kontratu –gehienez hiru urtekoak– egin diezazkioke gazte bati jarraian, gutxieneko soldataren %75 ordainduz. Gainera, gazte hori kontratuan zehazten ez diren beste lan mota batzuk egitera derrigor dezake nagusiak. Horrelako kontratuak egiteko adin muga igo egin du erreformak: lehen 25 urte arte zen eta orain 30 urte arte, harik eta Espainian langabezia tasa %15etik behera jaisten den arte. Horrek esan nahi du langile bat 33 urte arte aritu daitekeela enpresa berean 500 euroren azpitik kobratuz. Elkartzen kolektiboak 2012ko otsailean egindako azken kalkularen arabera, pertsona batek duintasunez bizi ahal izateko 963 euro jaso beharko litzuzke.

Gurutze-bidea ez da hor amaitzen ordea. 50 langile baino gutxiago dituzten enpresek –Euskal Herrian enpresen %99a– kontratu mugagabeak eginez gero, urtebeteren buruan langilea bota dezakete inolako kostu eta indemnizaziorik gabe. Despidio librea alegia. Gainera, kontratatutak langabezia-saria kobratzeko eskubidea badu, sari horren %25 erabil dezake enpresariak. “Nolabaiteko umilazioaren aurrean gaude, langileari proposatzen baitzaio bere soldataren zati bat ordain dezala”, dio Koldo Irurzun EHUko Lan Zuzenbideko irakasleak *Garan* egindako elkarrizketa batean.

Neurri horiekin matematika askorik behar ez duen ariketa bat egin nahi du Gobernuak: lehen langabetu bat eta *mileurista* bat zegoen tokian, orain bi *bostehuneurista* izango dira. Liberalismoaren kontuak dira. ■



m29
Greba Orokorra

**Tinko
geurean!**

www.ela-sindikatura.org

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Merkataritzan euskaraz

Bilboko dendariak bezeroari begira

Bilboko lau merkatarirekin aritu gara berbetan. Euskara ikasten ari dira, bezeroarekin hizkuntza hori erabili nahi dutelako. Lotsa ematen die lehen hitza euskaraz egiteak, baina haiei hala eginez gero ikasitako guztia mihira dakarte.

Testua eta argazkia:

AMAIA UGALDE BEGOÑA

“NORMALEAN hemen Bilbon oso arraroa da bezeroek euskaraz egitea”. “Nire dendan gero eta gehiagok egiten du”. “Ba nik egunean birritan-edo edukitzen dut dendan euskaraz hitz egiteko aukera”. “Erakusleihoko kartelak hizkuntza bietan dauzkat eta horrela jendeak susmatzen du barruan euskaraz egin daitekeela”. Bilboko zentroan lan egiten duten merkatarien berbak dira horiek. Astean bi eguerdi ostean euskara ikastera joaten dira Indautxuko AEKra. Badabilta ikasten, eta ausardia pixka bat batuta, bezeroekin euskaraz egiten saiatzen dira. Horretarako lehen baldintza bezeroek eurek lehen hitza euskaraz esatea izaten da.

“Duela asko hasi nintzen euskaltegian, baina lan ordutegiaren gatik klaseak utzi behar izan nituen”. Merkataria ugariri gertatu zaio Jabi Carrillori gertatu zaionaren antzeko zerbait. Burdindegian baten egiten du lan eta eguerdian euskara ikasten hasi da aurren. Duela hiru urte, Bilboko Udala dendarietarako ikastaro bereziak diruz laguntzen hasi zen, Biribilko izeneko egitasmoaren baitan. Klase gehienak eguerdian izaten dira HABE eta AEK-ko euskaltegietan. Indautxuko AEKn egon gara gu, euskara ikasten dabilzan merkatariekin solasean.

Euskaltegiara eguerdi ostean gerturatu gara, izan ere, ordu biak eta laurdenetan hasten du merkataria



Ezkerretik eskumara Jabi Carrillo, Fernando Garcia, Arantza Alvarez irakaslea, Amaia Chorro eta Izaskun Bilbao.

talde batek euskara ikastaroa. Gaurkoan lau lagun batu dira. Amaia Chorro botikaria da eta duela hiru urte hasi zen Biribilkon parte hartzen. Fernando Garcia ere bai; telefono mugikorren denda batean egiten du lan. Izaskun Bilbao bigarren urtea du hau eta kirol dendan egiten du behar. Laugarren ikaslea Jabi Carrillo da. Arantza Alvarez arduratzen da ikastaroa zuzentzeaz.

Gustura dabilta euskara ikasten. Astean bi egun gutxi dela diote, baina dendetako ordutegia kontuan

hartuta eurentzako ordutegi egokiena hori da.

Bezeroek lehenengo hitza

Azalpenak ederto ematen dituzte euskaraz lau merkatariek, baina bezeroei “zerbait gura duzu?” galdetzen... ez, oraindik ez dira ausartzen bezeroengana euskaraz zuzentzen. Gainera, azaldu dutenez, bezeroek eurek edukitzen dute lehenengo hitza, eta Carrilloren arabera, “nahiz eta jakin, oso arraroa da bezeroek euskaraz berba egitea”. Chorro ere gauza bera uste du:

“Ulertzen dugula badakite, egingo dute, baina normalean ez dira aha-
legintzen”.

Bilbaori, aldiz, kirol arropa den-
dan, gero eta bezero gehiagok egi-
ten dio euskaraz. Erakusleioan
kartel guztiak euskaraz jartzen saia-
tzen dela azaldu du: “Gabonetan
ordutegi berezia iragartzeko kartela
idatzi nuen”. Gero Alvarez irakas-
leari ekarri zion zuzentzeko. Karte-
lekin jendeak barruan euskaraz hitz
egiteko aukera ikusiko duela uste
du: “Horregatik gero eta jende
gehiagok hitz egiten dit euskaraz!”.
Lotsa apur batekin erantzuten diela
aitortu du, “eta bezeroek oso pozik
hartzen dute”. Carrillok ere igar-
tzen du bezeroen harrera ona: “Bikote bat sartzen bada eta euren
artean euskaraz badabiltza, pista
ematen dute; eta gero ‘poltsa bat
ipiniko dizut?’ galdetuta poztu egi-
ten dira”. Bilbaok nabarmendu
duenez, “nahiz eta txarto egin, jen-
deari gustatu egiten zaio, eta anima-
tu egiten gaitu euskaraz berba egite-
ra. Moldatzen gara, euskara eta
erdara konbinatzen ditugu eta beze-
roek asko eskertzen dute”.

**Azalpenak ederto ematen
dituzte euskaraz lau
merkatariek, baina
bezeroei “zerbait gura
duzu?”... ez, oraindik ez
dira ausartzen
bezeroengana euskaraz
zuzentzen**

Hala eta guztiz ere, euskaraz
beharrean berba egiteko aukera
gutxi izaten dutela nabarmendu
dute merkatariek. Fernando Garciak
azaldu duenez bere inguruan lanki-
deetako inork ez du euskara erabil-
tzen, eta Carrillok kalkuluak egin
ditu: “Egunean bi aldiz-edo eduki-

tzen dut euskaraz hitz egiteko auke-
ra burdindegian”. Badauka, hala ere,
bezero fidel bat beti euskaraz egiten
diona: “Giltzak egitera etortzen da,
nigana beti, eta euskaraz egiten du.
Gustura egongo da zerbitzuagaz,
baina nik euskaraz jakiteak ere eragi-
na daukala uste dut”. Garciak, tele-
fonoen alorrean lanean ibilita, beze-
roak kezaka badatoz ez duela sekula
euskaraz egiten azaldu du, gai kora-
pilatsuetan euskaraz ez baita eroso
sentitzen: “Atseginak badira agian
bai”, dio erdi barrez.

Seme-alabekin euskaraz

Carrillok egunerokoan normalean
ez du euskara praktikatzeko, baina
bere umeei beti: “Jaio zirenetik
egiten diet euskaraz, baina maila
batera heltzen zebiltzala ikusi nuen,
eta horregatik erabaki nuen euskara
hobetu behar nuela euskaltegian”.
Garciak ere bi seme-alaba ditu.
Eskolako lanetan laguntzen saia-
tzen dela aipatu du, eta ez dela bate-
re erraza: “Normalean euskaraz
hitz egiten den herriak bisitatu gura
izaten ditut umeei ikusteko beste
pertsona batzuek erabiltzen dutela
eta ez dela eskola barruko gauza
bakarrik. Harritu egiten dira”.
Carrillok nabarmendu duenez,
“badakit euskara eskolagaz erlazio-
natzan dutela, eta horregatik egiten
diet beti euskaraz”.

Kontuak kontu, euskararen etor-
kizunaz baikor dira merkatariek.
Garciaren iritziz, gaur egun asko
erabili ez arren, “gero beharrezkoa
izango da”. Bilbaok ere gauza bera
uste du: “Gurasoek ez dakite, baina
umeei bai, eta eurek nagusitzean
euskaraz hitz egingo dute”.

Biribilko egitasmoaren jarraipena

Klase amaieran ikasleek ardura bat
azaldu dute; ez dakite datorren
urtean euskara ikasteko diru-lagun-
tzak jarraituko ote duen: “Talde txi-
kia gara eta orain krisia dela-eta gai-

Bilbo, gero eta euskaldunago

Biribilko egitasmoa martxan ipini
aurretik Bilboko Udalak merkata-
ritzaren azterketa soziolinguisti-
koa agindu zion Siadeco aholku-
laritza enpresari. Ondorioztatu
zenez, Bilboko merkatarien
%22,9 euskara ulertzeko gai da.
Inkesta pasatutako merkatarien
%30,5ak euskarazko ikastaroeki-
ko interesa agertu zuen.

Hiru ikasturteotan 469 merka-
tari hurreratu dira Bilboko eus-
kaltegieta Biribilkon parte har-
tzera; aurten 112 dabiltza
euskara ikasten. Proiektuaren
arduradunek nabarmendu dute
euskara ikasteko arrazoi nagusi
bi dituztela merkatariek. Batetik,
interesa dute euskara euren
herriko hizkuntza delako, eta
bestetik, gero eta gehiagok eus-
kara merkataritza zerbitzua hobe-
tzeko tresna moduan ikusten
duelako. Azken finean, gero eta
bezero euskaldun gehiago dute
Bilboko merkatariek. Euskararen
ezagutza asko hazi da azken
urteotan: 1996an 50.000 euskal-
dun bizi ziren eta 2006an 83.000
bilbotarrek aitortu zuten euska-
raz ondo berba egiteko gai zirela.
Horrez gainera, egunero-egunero
Bilboz kanpoko hainbat euskal-
dunek egiten du bizimodua Biz-
kaiko hiriburuan.

tza izango da agian”. Jarraitzeko
gogoz daude, eta horretarako mer-
katariei egitasmoaren berri ematea
behar dela nabarmendu dute:
“Askok ez dakite eguer-
dian aukera hau dagoe-
nik, udalak publizitate
gehiago egin beharko
luke”. ■



Babeslea: Bilboko Udalak

Bero-beroan

Herri ekimeneko euskal hedabideak: elkarlana helburu

HERRI EKIMENEN HEDABIDEEN sektorearen diagnosia eta erronka bateratuak identifikatu dituzte, eta duela egun batzuk, elkarrekin osatu duten dokumentua jendarean sinatu dute. Aurrera begira egindako hausnarketan azpimarratu dituzte negozio ereduak, lan baldintzak, kalitatea, lehiakortasuna, ikerketa eta elkarlana. Erakunde publikoei ere deia egin diete hausnarketa mahai bateratuak osa ditzaten.

Hedabide hauek 450.000 jarraitzaile dituzte, ehun komunikabide

baino gehiago dira eta 600 langiletik gora ari dira lanean.

Sektoreak aurrera begira bost desafio izango ditu: Interneten inbertitzea; produktuak hobetzea; berrikuntza eta ikerketa; elkarlana eta erakunde publikoen laguntza-politikan eragitea.

Sektorearen diagnosia egin eta erronkak bateratzea aurrera begira lan egiteko lehen harria baino ez da izango.

Bestalde, Nafarroako euskarazko hamaika irratia eta aldizkarik gobernuak isilarazi egin nahi dituztela salatu dute. Hedabideek diotenez, gobernuak diru-laguntzak kentzeko erabili duen aitzakia kri-

ONINTZA IRURETA AZKUNE



DANI BLANCO

Ezkerretik eskuinera Joan Mari Larrarte (Berria), Jasone Mendizabal (Topagunea) eta Xabier Letona ARGIAKO zuzendaria.

sia da, baina haien ustez euskarazko hedabideentzako diru-laguntzak behin betiko desagerrarazi nahi ditu.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIA

Banca Cívica, Kutxabank eta euskal kutxa

Hego Euskal Herriko aurrezki kutxen bankarizazio prozesuak abiadura handia hartu du. Gainera, badago mugimendurik gure aberastasuna, baliabideak eta aurrezkiak kanpotik kontrolatzeko. EAEko aurrezki kutxek lehen ere hasita zuten bankarizazio prozesua, Kutxabanken sorrera adibide. Euskal aurrezki kutxetatik sortutako erakunde berri hori Euskal Herri-tik kudeatzen da oraingoz, operazio berririk baztertu ezin den arren. Horren aurretik Nafarroako Aurrezki Kutxak hasi zuen bankarizazioa, hain ezberdinak diren Caja Sol, Caja Burgos eta Caja Canarias aurrezki kutxe-kin batera Banca Cívica sortuz. Eta hain zuzen, asteotan Caixabankek Banca Cívica aztertzen dihardu, bere kontrola eskuratzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi dionez. Banca Cívica ere ari da beste aukera bat miatzen: Ibercajarekin fusionatzea. Beraz, badirudi Banca Cívica laster Euskal Herri-tik kanpoko talde handiago batean sartuko dela. Eta, zer pasako da Kutxabankekin?

Gauzak horrela, herritarren zati handi batek nahiko lukeen euskal aurrezki kutxa bakarrak gero eta ezinezkoagoa dirudi. Martxa honetan, jadanik bankarizaturik dauden gure aurrezki kutxek euren erabakiguneak Euskal Herri-tik kanpo izan ditzakete eta gure interesak ezin izango dira Euskal Herri-tik defendatu. Herri honek autodeterminatzea lortzen duenerako, eta independentziaren aukeraren alde egingo balu, gure aberastasunaren zati handi bat herri honetatik kanpoko erakundeek kudeatuko lukete, ondorio lazarriak ekarri gure sare industrial, ekonomiko eta sozialarentzako, baita lurralde antolamendurako ere. Tamalez, prozesu honek jada atzeraezina dirudi. Norbaitek gelditu dezake?

Juan Mari Arregi



BAHEA

Erramun Turutarenak Turutene blogean umore ederrez esanak: “Ideia batekin nator mundu globalizatuan euskararen biziraupena bermatzeko. Beno, esan dezagun egia osoa, suhiltzaile ideia bat.

Aurreko mangerakada batean ikusentzunezko produkzioen gaineko Tobin Tasa antzeko bat proposatzen nuen ondoren hizkuntza gutxituetarako bikoizketak eta ekoizpen propioak sustatzeko. Izan ere, merkatu kapitalistan biziraun nahi badu kapitalarekin berarekin aliatu behar du hizkuntzak. Hortarako boterea ez dugunez, ondorengo proposatzen dut (adi): Euskal Herrian egiten diren transakzio guztiak euskaraz egitea. Alderdi guztiek adostuko lukete Euskal Herriko banku guztietan euskara bakarrik hitz egingo litzatekeela. A ereduko ikasleek ere euskararen lexiko kapitalista zinez indartuta ikasiko lukete, aski garrantzitsua baita etorkizunerako diruekin ondo negoziatzea. Enpresek euskaraz eramango lukete kontabilitatea, nola bestela? Eta abar, eta abar. Horrelako euskarazko hegemonia gune adostu batek nolako eragin soziolinguistikoa izango lukeen jakiteagatik... euskara bera salduko al genuke?”.

Ezker abertzalea, bat gehiago

ELKARBIZITZAREN aldeko ponentzia aurrera atera daiteke Eusko Legebiltzarrean, baina egina dagoen moduan herren dago bere helburu teorikoari egoki erantzuteko. Esan gura du horrek ez duela onik ekarriko? Pragmatismoaren esentziari lotuz, seguruenik ekar dezake aurreapausorik elkarbizitzaren malkarrera, bizitzako beste dozenaka jarrera eta keinuk egin dezaketen moduan. Baina ez da hori kontua, bakearen eraikuntzan Eusko Legebiltzarrari oinarriak txukun jarri ditzan eskatu behar zaio, eta ponentzia honekin ez da halakorik lortzen, ezker abertzalea alboratzen duen edozer ez dela ondo oinarritua egongo.

Argudia liteke ezker abertzalea bakarrik ez, PP ere ekarri behar dela bake prozesura eta horrek bere denbora eta baldintzak eskatzen dituela. Eta ez da arrazoirik faltako. Argudia liteke, Legebiltzar hankamotz honek garai berrietarako egin dezakeen azken zerbitzuetakoa dela. Eta bai, hala izan liteke. Argudia liteke ezkorrenak irabazteko urrats bat dela. Eta akaso bai. Baina borondate onenean oinarritua balego ere, ez lioke oinarri sendorik jarriko elkarbizitzari. Ez da euskal gatazkan masterrik behar jakiteko ezker abertzaleak berdinetik berdiner, bat gehiago moduan, parte hartzen ez badu jai dugula.

Badira arrazoi asko, gainera, pentsatzeko PSE ponentzia bere larrera eramatekotan ari dela: kontakizun bakarraren gaian tematzea, oztopo handia izateaz gain, alferrikakoa da, lausotuago edo ez, gatazkan izandako ikuspegi bertsuak mantenduko direlako iraganaren irakurketan. Hainbat kontakizun, baina puntu batzuen inguruan adostasuna, horra elkarbizitza berriaren gakoa. Hala izan da bortizkeria eta gatazka sakanak izan diren beste leku batzuetan, eta hala izango da hemen ere, elkarbizitzarik izango bada behinik behin;

eta izango da, hori delako herritarren gehiengo handiaren desioa.

Bai, hobe ETAk armak bihar bertan entregatuko balitu eta etzi bere desegitea iragarriko balu. Baina bakoitzari berea, ETARI geratzea eskatu zaio urte luzetan eta ezker abertzaleari estrategia politiko-militarra alboratzea. Biak gertatu dira, eta askoz gauza gehiago ere bai. Denbora beharko du, baina Estatuak ez du aldaketa elikatu, areago, oraingoz nagusiki oztopatu egin du: Otegi eta Bateraguneko gainerakok, Sortu, tratu txarrak, Auzitegi Nazionala, epaiketa politikoak, preso- giza eskubideak urratzen jarraitzea (bai, hori da gaixo larriak espetxean mantentzea)...

Ez da euskal gatazkan masterrik behar jakiteko ezker abertzaleak berdinetik berdiner, bat gehiago moduan, parte hartzen ez badu jai dugula

Euskal gizarteak bakea nahi du, eta azken urtebetean ezker abertzalean urratsak antzeman dituzte, hauteskundeetan saritu egin ditu Bildu eta Amaiur. Argia izan da hori, baina ez dirudi oraingoz UPNk, PPK eta PSOEek hala sumatzen dutenik. Edo bai, mugimendu zenbait antzematen delako hantemenka, baina geldo eta urri, urrats bakoitzean ezker abertzalea sendotuko den beldurrez.

"EUSKARAZKO" medioetako hainbat kazetari ezker abertzaleko aktibista politikoki diren bitartean ez dugu esparru normalizaturik izango... zioen duela aste batzuk Markel Olanok Twitterreko mezu batean. Esaldiak beharko luke egi-

learen 140 karaktere baino gehiago aktibismo politikoa zer den azaltzeko, edo azaltzeko ea euskal medioetan ez dagoen normalizaziorik hainbat kazetari ezker abertzalekoak direlako; edo ezker abertzaleko hainbat horiek horren indartsuak ote diren sektore oso bat baldintzatzeko. Baiezta-pen batzuekin kontu handiz ibili behar da, edo ondo azaltzen da pentsatzen dena –hori komeni da– edo kalte asko egin daiteke. Ez ote da normalena eta egiazkoena euskarazko medioetako kazetarien perfil ideologikoa askotarikoa izatea? Normalizazioak ez ote du zerikusi handiagoa izango euskararen egoera ez normalizatuarekin?

Hori da, azken finean, esaldiaren zatirik esanguratsuen, euskal medioetan ez dugula esparru normalizaturik, eta horretan bederen bat datoz Olano eta euskal medio gehienak. Joan den astekoa ez zen ohikoa izan euskal hedabideetan: batetik, herri ekimeneko 54 euskal hedabidek sektorearen diagnostiko bateratu bat aurkeztu zuten lehenbiziz, eta bestetik, tokiko 19 hedabidek Tokikom sortu zuten, Topagunearen barruan beste era batera jarduteko.

Euskal hedabideek, azken finean, beste urrats bat eman dute: badakite ibilbidea beraiekin egin beharko dutela ezinbestean, elkarrekin hainbat gauza hobeto egingo dituztela eta, gainera, haien egoeraren analisia ezinbestean partekatu behar dela instituzioekin. EAEko instituzio nagusienek behintzat –Jaurilaritzak eta diputazioek– adierazia dute badutela horretarako borondatea. Azterketa bateratuari ekin behar orain. Mugimenduak datoz euskal komunikazio esparrura, eta ona da hori, baina arretaz ere ibili beharko da, pena bailitzateke mugimendu horiek krisi garaiko diru eskasien eraginez bakarrik gataztea.



Zorpean sarraraziz nola ostu diguten denbora

Maurizio Lazzarato soziologo eta filosofo italiar Parisen bizi denak plazaratu berria du *La fabrique de l'homme endetté* (Gizaki zorpetuaren sorrera). *Le Monde Diplomatique* otsailean hautatu ditu zatietako batzuk, eta guk hemen horiek ipini ditugu euskaratuta. Besteren artean zorrarena ere baden krisi handiari argi berezia ematen diolako.

BATA BESTEAREN SEGIDAN IRITSI diren finantza krisiek azalarazi dute figura subjektibo bat gaur egun espazio publikoa osorik hartzen duena: zorpetutako gizakia. Zorraren fenomenoa ez da mugatzen alderdi ekonomikoetara. Errejimen neoliberal batean harreman sozialak mugatzen dituen gakoa da, desjabetze hirukoitza eragiten duelako: lehendik ahularen ahalmen politikoa, demokrazia errepresentatiboak utzia, ostean du; lehengo borroken poderioz kapitalisten ahalmenari kentzea lortutako aberastasunik gehiena ostean du; eta, batez ere, etorkizuna lapurtzen du, hau da, aukerak eta alternatibak eskaintzen dituen denbora.

Zordun-hartzekodun harremanak areagotu egiten ditu kapitalismoak bere dituen zapalkuntza eta menderaketa. Zorrek ez baititu eza gutzen langileak eta langabetuak, kontsumitzaileak eta ekoizleak, aktiboak eta ez-aktiboak, jubilatuak eta gutxieneko errenta sozialekin bizi direnak. Denei ezartzen die indar harreman bera: kreditu bat eskuratzeko ahulegiak diren pertsonak ere parte hartu beharra daukate zor publikoak sortutako interesen ordainketan. Gizarte osoa dago zorpetua, eta honek gutxitu ez baina askoz handiagoz dituen diferentziak, “klase diferentziak” deitu beharko genituzkeenak.

Bizi dugun krisiak erakusten du neoliberalismoaren gai nagusietako bat jabegoarena dela: hartzekodunaren eta zordunaren arteko harremana lotuta dago kapitalaren tituluen jabe direnen eta ez direnen arteko indar erlazioarekin. Sekulako dirutzak pasatzen dira zordunetatik (gizartearen gehiengoa) hartzekodunetara (bankuak, pentsio funtsak, enpresak, familiarik aberatsenak): interesen pilaketarekin, garapen bidean diren herrialdeen zorra pasatu da 1970ean ziren 70.000 milioi dolar izatetik gaur diren 3,54 bilioi dolar izatera. Eta hala ere, tarte horretan herrialde horiek pagatu dute hasieran zor zutenaren ehun eta hamar halako.

Zorrek, bestalde, sortzen du oso berea duen moral bat, lanaren moralaren oso ezberdina. Lanaren ideologiak daukan ahalegina-ordaina bikotearen ordeztu ezarri da promesaren (onartutako zorra pagatzearen) eta erruaren (zorra onartu izanaren) morala.

Alemaniko prentsak “greziar parasitoen” kontra egin duen kanpainak erakusten du zorraren ekonomiak daukan logikaren bortza. Badirudi hedabideek, politikariek eta ekonomistek ez daukatela mezu bat besterik Atenasentzako: “oker bat egin duzue”, “errudunak zarete”. Funtsean, greziarrak alferke-

Maurizio Lazzarato beste ikertzaile eta pentsalari askoren obren artean aipatu du Jacques Le Goff historialariaren *La bourse et la vie. Economie et religion au Moyen Age*. Honetan bildua da XIII.eko eskuliburu baten atal hau, azalduz nola mailegu-emaile batek bereganatzen duen besteren denbora. “Usureroek bekatu egiten dute naturaren kontra, nahi dutelako dirua sortzea dirutik, zaldi batek bestea edo mandoak beste bat sortzea posible balitz bezala. Okerragoa dena, lukurariak lapurrak dira, berena ez den zerbait saltzen dutelako, norberarena ez den zerbait saltzea lapurreta baita. Bestalde, saltzen duten bakarra delarik diru esperantza, hau da, denbora, egunak eta gauak ari dira saltzen. Baina eguna argitasunaren denbora da eta gaua atsedena. Argia eta atsedena saltzen dituzte. Ez da zuzena eternoak diren argia eta atsedena haiek beren esku edukitzea”.

rian bizi dira eguzkitan etzanda, alemaniar protestanteak lanbro artean jo eta su lanean ari diren bitartean Europaren eta gizadiaren onetan. Hau eta kolpe zorrik jo gabe Estatu-probidentziak elikatzen dituen langabetuen kontua, dena bat dira.

Zorrek versus askatasuna

Zorrek bere indarra badirudi ez duela erakusten ez errepresioaren eta ez ideologiaren bitartez. Baina “librea” izan arren, zordunak ez dauka aukerarik bere jardura eta aukerak onartutako zorraren ordainak pagatzea baizik. Zu libre zara zure bizimodua (kontsumoa, enplegua, gastu sozialak, zergak, eta abar) daukazun zorrei aurre egiteko gaitasuna uzten dizuten neurrian.

Esate baterako, Estatu Batuetan, master bat bukatzen duten ikasleek %80k pilatzen dute 77.000 dolarreko zorra unibertsitate pribatu batean ikasi baldin badute eta 50.000koa publikoan aritu badira. Occupy Wall Street mugimenduarien barruan, ikasle batek deklaratu du: “Nire ikasketa-kreditua 75.000 dolarrekoa da. Laster ezingo dut pagatu. Bermea onartu duen gure aitak hartu beharko du bere gain. Gero bera ezingo da iritsi ordaintzera. Familia hondoratu dut nire klasetik gora iristen saiatuta”.



dituenean beren zorrak pagatzera. Horrela lortzen du kalkulatzera, neurtzea, ezartzea gaurko jokabideak bezala etorkizunekoak, hots, orainaren eta biharraren arteko zubia antolatzen du. Horrela, sistema kapitalistak lortzen du segurtatzea bihar gauzak izango direla gaur diren bezala, gaurko indar harremanak berdinak izango dira etorkizunean. Gaur daukagun sentazio arraro hau, bizi garena ez denborarik, ez aukerarik, ez haustura posiblek gabeko gizarte batean –zer besterik salatzen dute “suminduek”?– zorpetzean aurkitzen du esplikazio nagusietakoa.

Duela mende batzuetatik da eza-guna denboraren eta zorren arteko harremana, dirua prestatzearen eta denbora lapurtzearen artekoa. Erdi Aroan lukurreriaren eta interesen arteko bereizketa oso garbia ez izan arren oso ondo ohartzen ziren dirua mailegatzan duenak zordunari denbora “ostu” egiten diola, eta horretan dagoela okerra: denbora saltzen zuen, inorena ez dena, jabe bakartzat Jainkoa duena.

Gizarte industrialetan bai baldin bazen artean denbora “ireki” bat –aurrerapen moduan edo iraultza moduan– gaur egun etorkizuna eta bere aukerak blokatuta ikusten dira, finantzek mugitzen dituzten eta indar harreman kapitalistak betikotzea bilatzen duten dirutza ikaragarriek zanpatuta. Zeren eta zorrak denbora indargabetzen baitu, aukera berriak sortu ditzakeen denbora, hau da, aldaketa politiko, sozial edo estetiko ororen lehen gaia. ■



Mekanismo bera da pertsona bakarrarentzako eta populazioarentzako. Hil baino gutxi lehenago, 2001eko apirilean, Irlandako finantza ministro izandako Brian Lenihanek deklaratu zuen: “2008ko maiatzean kargua hartu nuenetik ohartu nintzen gure zailtasunak –bai gure bankuen eta bai gure finantza publikoenak– hain handiak zirela, ezez eta burujabetza galdua baikenuen”. Europar Batasunari eta Nazioarteko Diru Funtsari laguntza eskatzean “Irlandak uko egin zion bere etorkizuna bere eskuz erabakitzeke ahalmenari”.

Hartzekodunak zordunaren gain daukan ahalmenak eramaten gaitu Michel Foucaultek botereaz emandako azken definiziora: botereak

“izaki libre” mantentzeko ahalmena ematen du. Zorren ahalmenak libre uzten zaitu, baina bultzatzen zaitu –berehala!– bide bakarretik abiatzera: zure zorrak pagatzera (baita horretarako Europak eta NDFak beren politika ekonomikoak inposatuz zorduna atzerakadara kondenatuko badute ere).


Baina hartzekodun eta zordunen arteko harremanak ez ditu kaltetzen gaurko biztanleak bakarrik. Zorrek ordaintzeko ez zaienez fiskalitatea handitzen irabazi handienak dituztenei eta enpresei –hau da, klaseen arteko logikari kontra eginez– zorren kudeaketak etorkizuneko belaunaldiak harrapatzen ditu.

Kapitalismoak eskua sartzen du etorkizunean, gobernuak behartzen



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Josemari Velez de Mendizabal

Bizitza nomadak

H irurogeita bigarren eguna da gaurkoa, etxe-istripu batek zenbait aste-tarako geldigeldi egotera behartu ninduenetik. Liburuz eta ordenadorez inguratua, ohea egokitu nuen oinarritzko nire premia fisiologikoetara eta logelako leihoa izan dut behatoki aparta, gora eta behera paseatzen ari direnen zeltari ezkutu bihurtuta. Nire aurrean, seguru asko ibilbide berdina milaka urtez egin duen ibaiaren urak abiadura biziagoa hartzeko esperoan daude, itsasertzerako noiz helduko irrikan, nonbait.

Ibaiek pertsonaren bizitzaren misterioa ekartzen dit gogora. Bi ertzetatik doaz eta datozen gizon-emakume horien ilusio eta ametsak agertzen zaizkit, baita zoritxarrak ere, pertsonaien izenak ezagutzen ez ditudan arren. Baina beraiekin batera nabil ni ere, gora eta behera, jaiotzatik bertatik bide bertsua gainditzen ahalegindu baika-ra: osasuna, ongizatea, bakea, betierekotasuna... pobrezia, biluztasuna, zalantza, heriotza! Inongo ziurtasun arrazoitu eta egitasun sistematizatu ez dator dependentziaren sentimendua arintzera, ezgaitasunaren sentzu infinitoa mugatzera. Eskuetatik bakarrik ez, baizik geure ahalmen finitoetatik ihes egiten digun sentsazio itogarriak patuaren aurrean jartzen gaitu, preso bezala.

Ibairen sinbolismoa, bere ur txiki zein handiekin, zirraragarri bihurtzen da, korrontez gora abiatu nahi dutenentzat. Eroen lantegia litzateke iturbururantz itzultzea. Ur tantak beherantz –itsasoaren zabaltasunerantz– doazen moduan, gu –bizitzaren ibiltari garenok– zerumuga berriak aurkitu beharrean gaude, non eta itsasoaren sakontasun mugagabea ezkutatzen diren bazterretan edota desertuko hondarretan barrena. Horietara helduz gero, gutariko bakoitzak irakurriko ditu bere baitan berari dagozkion zeinuzko xehetasunak. Eta haiek non dauden alde zurretik ez dakigulako bihurtzen zaigu bilaketa eternala.

Gure mendebal zibilizazioak aspaldi okerrarazi zuen gizakiaren adimena, horren aurrean berezkoak ez zitzaizkion balioak ipinita. Dena dago prestatuta zen-



DANI BLANCO

tzuak lokarrarazteko eta arrazionalismoarekin zigortzen gaitu, adimenaren askatasunik txikiena ere arbuiatzen delarik. Bizitzaren misterioa ezabatu egin da gure eguneroko menuetatik. Ez zaio interesatzen sistemari. Sirian lehergailu batek berrogei lagun hil dituela da zerbitzatzen zaigun albiste. Edota gure auzoan emakume bat gazte batzuek bortxatua izan dela. Eta azalean geratzen gara. Beldur diogu horren guztiaren azpian zer dagoen iker-tzeari. Badirudi ez garela gai “nahikoa da!” ozen bat oihukatu eta aurrera pausu bat emateko. Zerbaitek tiratzen gaitu atzerantz, arrazionalismo itogarriari galderak planteatzeak zailtasunak besterik ez digula ekarriko abisatu nahi baligu bezala.



Gure mendebal zibilizazioak aspaldi okerrarazi zuen
gizakiaren adimena, horren aurrean berezkoak ez zitzaizkion
balioak ipinita. Dena dago prestatuta zentzuak lokarrarazteko eta
arrazionalismoarekin zigortzen gaitu, adimenaren
askatasunik txikiena ere arbuiatzen delarik




Baina konbentzitututa nago nomadak izatea dagokigula, bihar kanpamendua non edukiko dudan ezezagun. Bizitza-egonkortasunak mugak markatzen dizki-gu, eta gurea bakarrik ez den espazio baten jabe garela sinestarazten digu. Eta, azkenik, baita horren defentsan bizitza bera alferrik galtzera ere eramaten gaitu. Nomadak izatea, hain zuzen, inongo egia-ren jaun garenik pentsa ez dezagun. Nomadak, gure hutsen erantzule azkarrak izan gaitezten. Nomadak, azken finean, gure eguneroko egitaraua etengabe errebi-sa dezagun. Ez da hizki bat ere betikoa ongi idatzia dagoenik. Horregatik, arretaz eta zentzu osoz erreparatu behar zaio bizitza-literaturari. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Ibernalo Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Kanpezu ARABA
www.ibernalorural.com

1

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA
www.ekainberri.com

2



EUREKA! zientzia museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

3



Topeka

Beti bide zailenetik

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argaia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2314. Argia)

IRIARTE JAUREGIA

- Igor Piñeiro Zabala (Getxo)

EKAINBERRI

- Jose Mari Balerdi Munduate (Alegia)
- Karmelo Busturia Jimeno (Donostia)
- Joseba Ezpeleta Irizar (Arrasate)

MUNDUKO IPUINAK

- Jon Mikel Barandiaran Arratibel (Errenteria)
- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Patxi Arostegi Jimeno (Bilbo)
- Miren Iturrioz Guiu (Andoain)
- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)

TARPOON Urpekaritza

"Discover Scuba" saioa

- Arantxa Garmendia Lasa (Zaldibia)
- Karmen Zelaia Etxeberria (Bilbo)
- Mikel Leturiaga Gorrotxategi (Zarautz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunaia@argaia.com

www.argaia.com/gunea

gunea

argaia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

